


IRAURGI BAILARAKO KONTU ZAHARRAK



GOIZARGI ORIVESAGASTI

IRAUARGI
BAILARAKO
KONTU
ZAHARRAK

GOIZARGI ORIVESAGASTI

Sarrera

Iraurgi bailara, Euskal-Herriko beste aran askoren gisan, mendiz babesturiko lautada batean kokatzen da, honela, inguru naturala bertako biztanleen bizimoduarekin uztarrurik izan dela-rik betidanik. Auzo eta baserriz jantziriko jingu-tune honetan, aintzinako tradizioak, oraindik orain, bizirik darrai, dagoeneko ahul eta arnasa-gabe badago ere.

Izan ere, denbora aurrera doan heinean, Azkoiti eta Azpeitiko hiribilduetan bizimo-dua nabarmenki aldatzen ari da, gizarte berri bat eratu baita. Ondorioz, aintzinako tradizio-ak zuen indarra ia galdurik dagoela esan dai-teke. Nekazal giroan dauden auzo eta baserri-eten aldiz, aintzinako tradizioaren aztarna apur batzuk isladatzen dira bertako bizilagu-nen eguneroko zereginetan.

Aitzitik, nekazal guneeitan ere, aintzinako tradi-zioa ahultzen ari da, baserrieta geroz eta zahar gutxiago gelditzen baitira (aintzinako tradizioa-ren lekukorik garrantzitsuenak direnak hiltzen ari baitira) era geroz eta gazte gutxiago.

Hori dela eta, aintzinako tradizioa historiara bidean doa, historia hori ahoz soilik ezagutzen delarik herritarren artean. Ahoz eta belaunaldi belaunaldi transmitituz, gure herriko historiaren ardatz diren hainbat istorio iritsi zaizkigu gaur arte, baina beste asko bidean galdu zaizkigu.

Horregatik, ahozko tradizioa jasotzea oso garrantzitsua dela argi dago, ezinbestekoa baita bailara baten historia eta bizimodua behar bezala ezagutzeko.

Beraz, galtzean dagoen tradizioa bere horretan gal ez dadin eta herriarrek eskura izan dezaten, lan honetan, Iraurgi bailarako hainbat kontuza-har biltzen saiatu gara.

Metodologia

Ezer baino lehen, kontuzaharren inguruko libururik esanguratsuenak hautatu ditugu, Iraurgi bailarako kontuez, ohituraz etab. apurtxo bat gehiago jakiteko asmoz. Honela, Iraurgi bailarari zegozkion hainbat datu eskuratu ahal izan ditugu, bide batez, kontu hauek, ondoren gure berriemaileei galdezko balio izan digutelarik. Izan ere, hutsetik hastea, hots, oinarririk gabe berriemailea-rengana jo eta bilketarekin hastea ez baitzitzaigan biderik egokiena iruditzen.

Honela, gutxi gorabeherako galdetegi gisako bat prestatu ostean, berriemaileak hautatzeari ekin diogu. Egia esan, hau izan da akaso lanik zaileneetako bat, eginkizun honek denbora asko kentzen baitu. Halere, bailarakoa izaki, abantaila izan dugu bailarako jendea dexente ezagutzen baitugu eta euren bidez, berriemaileekin (sarri euren aiton-amonak edo lagunak zirelarik) harremanetan jartzea lortu baitugu.

Ordea, berriemaileekin elkartzeko modu honetan egin dugu. Lehenik eta behin, ezagunen bidez, bailarako auzo guztietatik berriemaile egokiak izan zitezkeenak hautatzen saiatu gara, gutxienez auzo bakoitzetik berriemaile bat zehatzuz. Beraiekin harremanetan jarri gara, tefefonoz edota zuzenean beraien etxera joz, eta aldez aurretik, elkartze eguna, ordua eta gunea finkatuz. Gainera, bilketarako elkartze lekua kasu guztietan berriemailearen etxea edo egunero beraientzat elkartze leku dena, hots, elkartze bat, kafetegi bat etab. izan da eta horrek izan du eraginik berriemaileekin izan dugun harremanean. Modu honetan, berriemaileak mesfidantzta gutxiagoz eta lasaiago aritu dira, beraiek erosoa sentitzen baitziren, eta beraz, kontuzaharrak egokiago azaltzen zituzten.

Bilketak egiterako garaian, berriemaileak banaka nahiz taldeka bildu ditugu eta alde honetatik, elkartze modu bakoitzak bere abantaila eta desabantailak dituela aipatu beharra dago. Izan ere, banaka, batzutan moztu egiten ziren berriemaileak edo ez zekiten zer esan, baina bestetik, kontuak kontatzean, patxada handiagoz eta egokiago kontatzen zituzten, zehazkiago. Aldiz, taldeka, lagunartean bezala elkarrikzeta bar sortzen da eta batak besteari zirikatuz eta kontuak gogoraraziz, hainbat gauza bildu ahal izan ditugu. Ordea, taldean, berriemaileek ez dute kontatzeko lasaitasun edo patxada berbera hartzen eta ez ditu horrenbesteko zehaztasunez azaltzen gauzak, beste elkarrikzketakideak tartekatzen direlako. Alde honetatik, bi bideak probatu ditugu eta bietatik atera dugu etekinik.

Aipatu baita ere, bailara honetako hainbat auzo herri bat baino gehiagotara egiten direla. Nuarbe, Aizpurutxo, Elosu, Matximenta eta Madariaga auzoetan esaterako, badira Azpeiti edota Azkoitiren barne ez dauden hainbat baserri. Ordea, baserri haueran kontaturiko edo hauei buruz liburuetatik bildutako istorioak ere bilketa honetan sartzea erabaki dugu. Izan ere, gure ustez, ez dago auzoa banatzten duen muga bortitzik eta auzo izaera oso bildua dute. Horregatik, metro batzuk gorabehera, istorio berberak auzo guztian ezagutzen dituzte, baserriak elkarrengandik gertu daudelako, hartuemanean, nahiz eta herri ezberdinetara egokitutako.

Batetik, berriemaileei grabagailu bidez jasotako kontuak transkribaturik emango dira jarraian, doinu ezberdinez adierazi edo keinuz lagunduriko hitz eta esaldiak azpimarraturik agertzen direlarik. Hala ere, kasu bakoitzean, hiztunaren jatorria bakarrik zehaztu da. Izan ere, hiztunen izenabizenak eta bestelako datu pertsonalak isilean gordetzea eta anonimotasunean geratzea ezinbesteko da berriemaileen babeserako.

Bestetik, hainbat liburutatik bildutako beste kontuzahar batzuk ere bere honetan emango ditugu hurrengo orrietañ, nabiz eta elkarritzetutako berriemaileak ezagutu ez. Kontu hauek jatorrizko liburuetan jasoriko hizkuntzan eta iturri bibliografikoa aipatuz emango dira.

Beraz, berriemaileengandik nahiz liburuetatik jasotako kontuak edukiaren arabera sailkatu dira:

1. ATERALDI, ESAERAK ETA HITZ JOKUAK.

2. PASADIZOAK.

3. GERTAERAK ETA BITXIKERIAK.

4. IPUINAK.

4.1. Animalien inguruko ipuinak.

4.2. Bestelakoak.

5. LEIENDAK.

5.1. Jeinuen leiendak.

5.1.1. Sorgiñak.

5.1.2. Lamiak.

5.1.3. Aztiak.

5.1.4. Bestelako jeinuak.

5.2. Hildakoen eta Arimen inguruko leiendak.

5.3. Itzularriak eta Jentillarriak.

5.4. Idinarruak eta Altxorrak.

5.5. Toponimiari buruzko leiendak.

5.6. Bestelakoak.

6. SINESMENA.

7. OHITURAK.

7.1. Erlilio-ohiturak.

7.2. Gaitzak eta sendagai edo sendabideak.

7.3. Erromeria eta neska laguntzea.

7.4. Festak eta jokuak.

7.5. Bestelakoak.

Kontuzaharrak

1. Ateraldiak, Esaerak eta hitz jokua

Azpeitian, besteak beste, hizketarako doi berezia izan duten eta duten pertsonaia ugari eta ezagunak izan dira herrian eta bailaran. Honela, hizketarako aparteko trebezia zuten hainbat lagunen pasarte edo ateraldi barzuk aipatzera joko dugu.

• KEIXETA

Keixeta oso famatua zen bere garaian, besteak beste, aizkolari onena zelako bere garaian, baina hizketa ere ez zen batere amutsagoa. Egoerak egoera, bazuen beti erantzunen bat eta oraindik, gogoan daude eta gero ere egongo dira, haren ateraldiak.

DIRUA NOLA ATERA¹

- Behin, auzoko batek, han hemenkako bere ibiliari esker informatuago zegoelakoan, galdera egin zion:
 - Haizu, Keixeta, obra bat egin nahi nuke, eta zuk ba al dakizu zer egin behar den aurrezki kutxarik dirua ateratzeko?
 - Keixetak, beste behin ere, zuzen eman zuen epaia:
 - Aurrena, sartu!
- (Azpeitia)

Ordea, beste liburu batetik istorio bera jaso dugu eta ia-ia berdina den arren, xehetasunak alde-ratzeko edo, jarraian azalduko dugu:

- Keixeta aizkolaria zen eta herriko herri ibiltzen zen. Aurrezki Kutxa edo "Caja de Ahorros"ek baserritarrei laguntza eskaintzen zien. Honelako baldintza, honenbesteko diru, honenbesteko interesak eta abar. Orduan auzoko baserritar batek Keixetari esan zion:
 - Aizu, Keixeta. Zu munduan asko ibiltzen zara eta jakingo duzu agian. Zer egin behar da "Caja de Ahorros"etik dirua ateratzeko?
 - Sartu!-erantzun zuen Keixetak².

KEIXETA KAMIOIAN¹

- Beste behin, Azkoitian aizkora apustu bat bukatu ondoren, hartu du gure Keixeta hori erre-zildar batek bere kamioian, Azpeitiraino ekarriko zuela esanda. Garai batean arrain garraioan ibiltzen zen kamioi horietako bat zen, hain zuzen, eta Loiola aldean behera zitzu bizian joango zen seguruena, eta Keixeta larri. Nonbait honela esan omen zion behintzat gidariari:
 - Uste det belaxe ailegauko garela, baina nahiago nuke ailegatura banego."
- (Azpeitia)

¹) *Lazkana Iaund Abo bizarrik gabe*

²) *Asunzio, Xabier, Herri eta irri.2. mailako Euskara bat. Donostia, 1982, 156 or.*

EZ HAIZELA GIZONA!¹

■ Mutilak aizkorako prestarzen ere fama handikoa zen. Behin bere mutilak apustua irabazi eta afaltzen ari zirela, galtzailearen aldeko gizatxar horietako bat eterri zaie berak zeuden mahaira, eskandalu bila noski. Eta esaten dio Keixetati:

- Zuk esan omen dezu, ni ez naizela gizona.

Keixetak orduan, bere hizketa apal eta gozoarekin:

- Antonio, neri ez didazu arrazoirik eman zu gizona ez zarela esateko, eta ez det inun esan zu gizona ez zarenik.

Antonio horrek, orduan eta harroago, jainkoa eta santu mordo bat komunetik pasatu, eta mahaiari ukabilkada bat emanez:

- Zuk esan omen dezu ni ez naizela gizona!

Eta horrela hiru edo lau aldziz, Keixeria heldurtuko zuelakoan. Keixetak, ordea, adinean aurre-ratu xamarra bazegoen ere asko iztu gabe, jaiki, bi besaburueratik heldu eta astindu txiki bat eman dio, esanez:

- Oraindik ez det esan, baina uste det berehalaxe esanaraziko didazula.

Han bukatu omen ziran eskandalu arriskuak.

(Azpeitia)

MULTA¹

■ Gerra garaian abertzale izateak arazo batzuk ekarri zizkion Keixetari. Hiru seme edo lau gerran eta berari isuna jarri zioten, ez nolanahikoa, gainera. Garai hartan etxeen zituen abere denen balioa adinakoa, alajaina! Ahal zuen bezala osatu du diru kopuru hori, auzoko ezagun eta senitarrekoen artean, eta badoa Azpeitiko udaletxera isuna ordaintzera. Han topo egiten du Txillarra mendiko Bentatxo baserriko Emeterio zeritzan batekin, bera bezain gizon bikaina eta argia. Keixetaren arazo berbera zuen. Sartzen dira udaletxera, jo dute lehiatila eta biek beren barreneko saminik handienarekin han uzten dute isunean ezarritako diru kopuru. Orduan Emeteriok, nortasun handiko templea erakutsiz, lehiatilaren beste aldean zegoenari esaten dio:

- Diru kopuru hau dena hemen utzi, eta ez al degu agiriren bat edo erreuiboren bar behar?

Momentu hartan zaila bazan ere, bere umore puntuak azalduz albotik Keixetak:

- Ez Emeterio, ez dugu inungo agiririk behar. Hau ez degu inoiz ahaztuko!

(Azpeitia)

Ordea, kontakizun honen beste honako aldaera hau ere liburu batetik jaso dugu:

KEIXETAREN MUNDUA³

■ Keixeta oso famatua zen Azpeitialde guztian. Oraindik ere haren ateraldiak gogoan daude. Eta gero ere egongo dira. Behin Keixetari munda (multa) bota zioten. Hiru mila pezetako munda. Semeak gerran eta garai haietan ez zen diru gutxi. Emeterio sasi abokatua edo horrelako zerbaite omen zen. Honek kobratu behar zuen munda. Ordaintzeko orduan, Emeterio agiria egiten hasi zen. Keixetak esan zion:

- Ez, Emeterio. Ez dago agiri beharrak. Hau ez zaigu ahaztuko.

KEXETA ETA AMENABAR⁴

- i) Keixeta Arria Zaharraren erakuslea zen. Arria Zaharra edo Arria Lehenengoa aizkolari handia izan zen. Amenabar Arriaren sozioa zen. Orduan Amenabarrek aizkora hartu zuen. Enborra ebakitzetan garbosoa hasi zen. Keixerak albotik esan zion:
- Bejondeizula, Joxe. Nik uste baino hobea zaude. Bainaz zeuk uste baino txarragoa.

• KASKANTE¹

Azpeitin bazen beste gizon bat, Fermín Kaskante, herriak asko gogoratzen duena, bere ateraldi bizi eta zotrotzei esker.

JESUITA

- i) Egun batean, mutil gazte batek Loiolara jesuita joan behar zuela aitorru zion, eta Kaskantek honela pintatu zion etorkizuna:
- Berehalaxe erakutsiko ditek *regla de tres*: listoa baldin bahaiz estudiora, tontoa baldin bahaiz lanera, eta alferra baldin bahaiz etxera.
- (Azpeitia)

TIRO-PLATO

- i) Kaskantek bazuen lagun bat txanpai botilaren ipurdia baino kristal lodiagoko betaurrekoak zituena. Egun batean, Landetan trago batzuk jota, futbol zelai aldetik behera, herrira sarreran hor egiten dute topo biek. Kaskantek nondik nora zebilen galdeztean, arratsalde hartan futbol zelaian tiro-plato jokatzen zenez, adar-jorze giroan esaten dio betaurrekodunak:
- Arratsalderako tiro-platoan parte hartzeko izena ematen izan nauk.
 - Eta Kaskantek...
 - Hi tiro-platora? Elurretan apaiza ez huke ikusiko ta!.
- (Azpeitia)

• OLAIZOLA¹

Fernando Olaizola, tailugile aparta, eskultore oso ona, eta gizon oraindik hobeak izan da. Horregatik da herrian oso maitatua. Hiztuna ere oso atsegina eta bizia da.

PUNTTUARI

- i) Egun batean, kartetan ari zela, puntuan hain zuzen, juxtu-justu puntu batez galduztako jokaldi baten ondoren, aholkuak ematen hasi zitzaien joko-laguna gure Fernandori:
- Azken aurreko pasaran bosta jo bahuau, gero xciak pasara egingo zian...
- Orduan Fernandok:
- Egin banuan eta ez banuan... gure amonak potroak izan balitu, aitona izango huan.
 - Eta errezildar batek aldamenetik:
 - Huraxé izango zen pamili ikusgarrii: bi aitona, eta amonaik batez!
- (Azpeitia)

TRENA

■ Fernandok izan zuen denboraldi bat gauzak ongi atera ez zitzaitziona, eta oso urduri zebilen. Egun haietako batean Lizaso Joxe eta bion artean eseri zitzaignun afari ondoren barean. Guk bera bezalaxe berak ere bertsolariak izugarri maite dituenez, txolarte luze baten ondoren, zera esan zigun:

- Solasaldi honek nere barrenak lasaitzeko eta argitzeko balio izan zidak. Gaur arratsaldeko bostetan izugarrizko depresioak iota nenguan. Nere burua zeharo menderatuta ikusten nian. Ez nian ezer behar nere burua trenari botatzeko ere. Orain, hemengo giro eta lagunarteari esker, beste gizon bat sentitzen nauk. Orain trena erosiko nikek.

(Azpeitia)

• ANTZIKO GREGORIO

Landeta auzoko Erribera deitzen diogun auzune horretan baserritar giroa noski, oso jende umoretsua izan da beti. Haietako bat aipatzekotan Antziko Gregorio aipatu daiteke. Bere bizimodua nekazari askok bezala nahiko gogorra izan bazen ere, sekula umorerik galtzen ez zuen gizon horietako bat zen bera.

ERRE

■ “Egun batean oso erretzaile purrukatua zenez, orduan ere erretzen etorriko zen eta auzoko andre batek esaten dio:

- Orain ere erretzen Gregorio.
- Eta besteak orduan:
- Bai, daukadan bizio bakarra hauxe da eta ezin utziko diogu.
- Orduan emakumeak:
- Baña, bafia, ez al dakizu hori oso txarra dela?
- Eta Gregoriok:
- Horregatik bada, gauza txar denak erre egin behar dira.”

(Azpeitia)

PERIA

■ Beste behin peritik etxera zetorrela hirurogei edo hirurogehitalbi urte inguru hartan, krisaldi gogor xamarra zen nimbait kaleko lantegietan eta auzoko batekin hizketaratu zenean bere periko istorioari buruz, han esaten dio Gregoriok bere solaskideari:

- Gaur oso gustora niek etxera, oso notizi ona zeramakit eta.
- Orduan bestek:
- Pozten nauk motel hain gustora ikusteaz. Baña jakin baliteke zein den notizi on hori?
- Bai gizona, gizon jakintsu usteko batek esan zidak oraingo krisialdi hau baserrietara ere iritsiko dela. Eta nik horixe nahi.
- Eta besteak harriduraz:
- Baña etzera bada krisiaren egarriz agongo.

Orduan gure Gregoriok:

- Horixe nagoela! Diruz len baño gutxiago ez diat izango eta lana kentzen badidate ba al dakik zer differentzi!"
(Azpeitia)

• PRAKAUNDI

■ "Meza ondoienen, prakaundi ta jundituk ezamako o, botella erdi eran da mokau bat eitea, Prakaundi te izitez urrustildarrak emen ituan de, iru apaiz ermentzaurean ordun urrustillen. Oyetako apaiz baték nun esate ermentzeok Prakaundiri, dirue ardotan gastau berrin, gastu ori ebitau ta diru ori mixiyotako botatzi obe izingouala.Ta prakaundik ixilliken dana atru te geo esan ementziyoan:

- Zueke iru apaiz eon, de bakoitzek neskame bana. Ez alitzeke obe, iturok neskame bakarrakin arreglau, gasto ori ebitau ta diru ori mixiyotako ematie?

Apaize mutu geldiu omen uan, ebangeliyu bukau ta azkar aldeñ ormentzian."

(Azpeitia)

• IEATE ZARRA

■ "Erbitea jun dituk Ieate⁵ ta Pello, eta abiya emen dituk, bat Atxumatriya⁶ aldea, ta besti bestaldea. Georxuo, jun dek leate Pellona ta galdezeok:

- Ze, erbik ikusi al dek?

Ta bestik erantzun:

- Bai, iru tiro bota zixkoat, bat onea, besti onea ta besti onea* bañe, erbik eztiat bota. Ieatek esan ermentzoan eoteko antxe, lexte etorriko zala ta. Ola, ba ermentzian Ieatek txakur bizkor bat, crbi useye antzeman orduko, da!* Ta geldi-geldi antxe gelditze emenuan. Ba ola, da* ! Ta geldiu dek txakurre ta, dlinbi-danba*! Bora emen ditxik bi erbi Ieatek, ta azkenin gañea Ieate baserri parin bora. Jun emen dek Peilona ta erbi pari eskun artute* esan ermentzeok:

- Pello, ikusitzak auek, ik botatakuk eztituk eta asko ikusiko.

Geo, bidin ikusi dik Don Martin apaize, ta areire, erbi pari eskun artute*:

- Martin, ik botatakuk izingoituk auek baño Ieate zarrak earki jangotxik."

(Azpeitia)

• DEABRU

"VUELTA DE ESPAÑA"

■ Bada beste azpeitiar berezi bat, "Deabru" esaten diotena. Mundu guztiak "Deabru" goitizenetan ezagutzen du. Deabru hau gerran abertzaleen aldetik ibili zen, Ibili bakarrik ez. Aurre samar ibili ere. Bide luzeak egin behar izan zituen Spainian zehar. Lehenbizi gudari eta gero prisionari.

Hauiek honela, urte batez Langarikak "Vuelta de España" irabazi zuen. Azpeitiar batzuk eztabaidea beroan ari ziren.Batzuk diru gutxi zela esaten zuten.Beste batzuk berri, asko zela esaten zuten. Hartan, Deabru heldu zen eta galdezu zioten:

- Zuk zer deritzazu?"Vuelta España" irabazteagatik, bi mila pezeta asko al da?

- Joder!-hots egin zuen Deabruk-. Askotan izango ez da, ba? Guk oinez egin genuen eta azkenetan gartzelara sartu gintuzten⁷.

5) "Karte" diotzen zain Oñate ansoan dagoen Igurain herriari eta haren benetan, baita bertako gizonari ere.

6) Oñateko Atxumatriko herria.

7) Elapoen, Juan Martín, Fernando Plaentziarra, Domatia, 1984, 156-157.or.

Ordea, kontakizun honen beste aldaera bat ere jaso dugu:

■ Azpeitiko beste pertsonaia bat Deabru deitzen geniona zen, bere izateko era eta ateraldiengatik ospetsua. Basari eta Uztapide oso lagunak zituen eta geroxeago gu ere bai. Lanari adina gorroto ez zion bere buruari. Tabernazale aparta, lagunartean aproposa, bere ateraldi eta abar. Parranda giroan sentitu ohi zen erosoa, seguru asko horregatik zen gure laguna ere. Beste asko bezala, Deabru ere gerrak harrapatu zuen, eta, hiru urte gerran han eta hemen ibili ondoren, kartzela eta horrelako ondorenak jasan zituen, ulertzekoan denez oso erraz ahaztu ez zituenak. Berrogeiko hamarkadaren azken aldera, Langarika txirrindulari handiak Espainiako Itzulia irabazi zuen, eta, ohiko garaikurraz aparte, hogei mila pezetako saria izan omen zuen dirutan. Ondorengo egun batean, Bittorreneta deitzen genion ostatu batean, bi gizon ari ziren eztabaidean Langarikaren saria buruz. Batek sari ona zela, eta besteak, aldiz, berrehun bat txirrindulari izango zirela Espainia osoari itzulia emanak, bera denetan onena, eta hogei mila pezeta bakarrik gutxi iruditzen zitzaiola. Horrela ari zirela, sartu da gure Deabru ostatu horretara, eta bietako batek esaten dio:

- Eztabaidan ari gaituk, Langarikaren sari hori nahikoa den edo ez den. Hik zer deritzok?
- Ordun Deabruk, bere beriko hizkera erabiliz:

- La hostia! Espainiari itzulia txirrinduan eramanda hogei mila pezeta, gutxi? Guk korrika egin behar izan genian, eta kartzela izan huen sari!

OGIA¹

■ Beste behin, Donostian bertsolari txapelketaren bat zela uste dut, azpeitiar bertsozale talde bat, gu Azpeitiko hiru bertsolariokin batera eta, nola ez, Deabru tartean zela, heldu gara Donostiara. Han, Uztapide, Lasarte eta abarrekin egin genuen topo, normala zenez, ostatu batean gosaltzeko. Aldi hartan Donostia aldeko okinek larunbat gauetan jai egiten zuten, non-bait, eta igandeeran ez zen eguneko ogitik izaten. Mahaian eseri ginenean, eta neskatxak gosaltzeako ogia ekarri, gure Deabruk, bezperan ere ez zegoen ut bedeinkatua edanda, eta jateko baino berriketakoko gogo gchiago zuenez, bere ogi zimela eskuan estutuz neskatxari berriz deitu eta esaten dio:

- Zu, ogi hau egin zuen okina hil zela zenbat urte dira?

ALTZARTETIK BEASAINA?²

■ Azpeitiko baserri batek Altzarte dauka izena. Bide batean gora joan eta azkenengo baseria da. Kontrabando garaia da. Kontrabando garaia zen. Gau batez, kamioizale nafar batek bidea galdu zuen. Goizaldeko lauretan bidea galdurik zebilen. Joan eta joan, pentsatu zuen:

- Non arraio nabil ni?. Galdetu egin beharko dut. Nori, ordea, ordu eta toki hauetan?.
- Halako batean goizeko lauretan, Altzarte baserriko atea jotzen du. Aitona bat irteten da eta nafarrak galderzen dio:

- Aizu, gizon. Beasaina hemendik joaten al da?.

- Bai! – erantzun zion aitonak-. Gu joaten garenean, hemendik joaten gara.

PATSARDOA⁹

■ “Gure amak kontatu ohi zuen behin auzoko baserri batean ataritik gizon bat pasadizoan tokatu eta etxekoandreak patsardoa atera ziola.” Hemen hau dugun bitartean ez du inork urik edaten”, esan zion etxekoandreak gizonari eta honek “lautik hiru bai”, erantzun omen zion, lautik hiru ura izaten baitzen.”

TXULETAK ETA GIZALEGEA¹⁰

■ Baziren Azpeitin bi mutilzahar. Harakinare mandatuak egiten ibiltzen ziren. Behin harakinak txuleta bi eman zizkien. Taberna batera joan eta tabernandreari esan zioten:

- Prestatuko al dízkigu zu txuleta hauek?.

Bi mutilzaharrak mahaien eseti ziren eta laster heldu ziren txuletak. Bata nahiko handiegoa zen bestea baino. Biak berriketan ari ziren. Inork ez zuen lehendabizi harru nahi. Halako batean, bata asperitu zen eta handia bartu zuen.

- Hik ez daukak gizalegerik!- esan zion besteak.

- Zer, ba? Heuk zein hartuko huen, ba?

- Txikia.

- Hor daukak!

GAITZERDI¹¹

Euskal-Herrian pertsonek ezezik herri bateko semeek ere gaitzirena izan ohi dute. Horrela, azkoitiarak *xakelak* dira, azpeitiarrak *xapuak*, oriotarrak *ijitoak*, oficiariak *txantxikuak* etab.

■ Behin, taberna baten aurtean Fernandok sekulako istilua izan zuen azpeitiar batekin. Azkenean azpeitiarrak, haritza bezalakoxe mutil kirtena bera, egundoko jipoia eman zion Fernando gizajoari. Burruka amaitu eta azpeitiarrak alde egin zuenean lagun bat hurreratu zitzaison Fernandori.

-Astindu ederra eman dosk, Fernando.

-Bai, baina berak ere entzun jituk galantak.

-Zer esan dorsak ba?

-Xapua,xapua eta xapua!

-Eta hori esanda ez hau ito?

-Hara, garbi esango dostrat. Kale kantoian ezkutatzen ikusi dudanean esan dostat. Eta eskerrak entzun ez duenari, bestela erruki nere hezurrik.

* * * * *

9) Agirre, Joxean eta Alzueta, Jesus, Joxe Agirre. *Mozketaren Auzina (Bixitzta eta Berroak)*, 34.or.

10) Amoriza, Xavier. *Herri eta irri. 2. maila! Euskara bat*. Donostia, 1983, 139.or.

11) Elkano, Juan Mari. *Fernando Plaentziarra*. Donostia, 1984, 38.or.

Historian zehar, eta orain ere bai, gutxiago bada ere, Azpeiti eta Azkoiti herriak ika-mikan ibili ohi dira beti. Honela, azpeitiarrak "xano" edo tontotzat hartu ohi dituzte azkoitiarrek, eta aldiz, azkoitiarrek harro edo handi-manditzat hartu ohi dituzte azpeitiarrak. Bilketa hauetan, azkoitarrek ez digute herri hauen arteko liskarraren aztarnarik utzi, ordea, azpeitarrek, hainbat pasarte gogorarazi dizkigute:

PLENOAK

- "Axkoitin juntau dituk udaletxekuk antxe, udaletxin bertan plenu eiteko. Ta an latin ai emen ituan. De, alkatik lokal bat ementzauean udaletxin atzekaldin de ala esan ementzian, Alkatin atzeko zulun* izingo zala urrungo astin plenue."

(Azpeitia)

PELOTA PARTIDUA

- "Axkoitine ala esan ementziaben, Aza, Butre, Bolante eta Kozkorrek pelotan nola jokako zeben atsaldeko etzaiat ze ordutene de, euriye eite bazuen, goizin jokauko zala."

(Azpeitia)

Bada ordea, aurreko gertaeraren beste antzoko aldaera bat, Azpeitin bertan konratu dugtena hau ere:

AZKOITIKO ZEZEN-KORRIDA

- "Axkoitin leno korridak iziteituan da, ala esantziaben, atsaldin euriye bazan, goizin ingo zala korridie, ta azkena zezena izinberrin, beye izingo zala."

(Azpeitia)

Eta Iraurgi bailaran izan ezik, Euskal-Herriko beste herri eta bailara batzuetan ere ezagunak dira horrelako istorioak eta aipatzeko da esaterako, aurretiaz aipaturiko istorio honen Asteasuko aldaera. Honela kontatu digu berriemailea batek:

- "Asteasuko jaiak San Pedrota eta mezetan apaizak esan omen zun:
 - Gaur aizkolariak eta arri jasotzaileak izango dira arratsaldean eta arratsaldean euria egiten badu goizean izango dira."

(Azkoitia)

"JOKAIZU LOTERIXE..."¹²⁾

- "Ama nahi dezunian jokaizu loterixe...", dio azkoitarren himnoak.

- Aurten ere etzitek tokau-kexati omen zebilen gabonostean azkoitiar hura. Hurrengu urtean ere:

- Nik zaukeat malapartie. Aurten ere xentimorik ez.

Errukia ematen omen zuen gizonak. Lagun batek galduet zion:

- Baina jokarzen al dek?

- Jokatu egin behar al da?

* * * * *

Bestalde, oso entzutetsuak izan dira betidanik Iraurgi baiarako ahari jokuak. Ahari apustuak tradizio handia dute bailara, eta oraindik orain, Azpeitiko zezenplazan jokatu ohi dira ahari apustu hauek. Hori dela eta, inguruko herrietatik baserritar eta joku eta apustuzale ugari bildu izan dira beti ahari jokueta-ra. Honela, jarraian, ahari jokuak nolakoak izan ohi ziren edo diren, zer noiako trikimailua erabili ohi zituzten azalduko digun pasadizo bat kontatuko dugu:

PERNANDOREN AHARIA¹³⁾

■ Pernandok, hezur eta azal besterik ez zen ahari bat omen zeukan ikuiluan. Ozta-ozta egoten zen zutik. Egun baterik bestera akabatuko zitzaiola eta ahari zaharrari bere etekina ateratzea pentsatu zuen.

Gipuzkoa osoko ahari zaleei desapio egiten ziela Pernandok zabaldu zen. Bere ahariaren aurka jokatzeko moduko abaririk norbaitek bazeukan azaltzeko Amezketako plazara. Herriz herri zabaldu zen deia eta jai baretan azkoitiar bat agertu zen izugarrizko ahari paska sokatik zuela. Txistuka hartu zuten denek Pernandoren aharia. Hura al zen ba apustura eramateko aharia izan ere? Zaharra, argala, erdi itsua...

Jokua hasi aurretik bi apustulariak elkarrengana hurbilidu ziren baldintzak zehatz eta garbi uztearren. Pernandok horrela hitz egin zion azkoitiarrari:

- Beno, borobil bat egingo dugu iurrean eta arrasto honetatik kanpora lehenengo irtetzen den ahariak galduko du apustua. Bale?

Azkoitiarrak ontzat eman zuen Pernandok esan ziona eta borobil bat marratu zuen lurrean teila pusketa batez.

Takateko bat nahikoa izan zuen Azkoitiko ahari bikainak Pernandorenari lepoa haursi eta lurrean zerraldo uzteko.

Pernandoren aharia hilda zegocia ikustean, azkoitiarrak, jokua bukatutzat eman zuen eta bere aharia zuhaitz bat lotu zion. Horretarako aharia borobiletik atera zuen.

Pernandok orduan hau esan zion azkoitiarrari:

- Barkatu, baina nire ahariak irabazi du jokua.

- Zure ahariak? Ez al duzu hilda dagoela ikusten?

- Horrek ez du ezer esan nahi –erantzun zion Pernandok-. Ahaztu al zaizu haseran zer esan dugun? Ez ai dugu esan arrastotik lehenengo irtetzen zen ahariak galtz zueia jokua? Nirea han dago oraindik. Zureak, nireak baino lehenago irten du. Galdu duzu apustua konpaño! Horrela irabazi zuen Pernandok apustua bere ahari elbarriarekin.

Ordea, ahari apustuetarako evezik, edonolako apustuetarako beti izaten zen norbait prest. Honela, era guztietaiko norgehiagoka eta apustuak ikusi izan dira Iraurgi bailaran; aizkol apustuak, korrika apustuak, bertso-desafioak, exhibizioak etab. eta garai batean, apustuek sarri, auzo mailako dimentsioa izaten zuten.

Honela, Joxe Agirre bertsolaria den arren, hainbat aizkol apustu eta korrika apustu eginiko gizona da eta aurretiaz aipaturiko Keixeta aizkolari ospetsua izan zen bere erakusleetako bat. Honela dio Joxe Agirrek:

ORANDA ETA XAGUA¹⁴⁾

■ “Gure apustuetara inguruko jendea biltzen zen, inguruko auzoetako jendea eta apustuzalearen batzuk. Badakit, esate baterako, gure apustua ikusten Luxia ere izan zela, Eibartik edo bizi zen lekutik propio etorrita. Xagua ni baino askoz handiagoa zen, 90 kilotik gora izango zituen. Bioi tokatu zitzagun apustuari hasiera ematea.Esan bezala, Keixetaren aginduei kasu eginenez, lasai antzean hasi nintzen eta Xaguak kolpe bategatik aurrea hartu zidan lehen enborrean, baina ni, 66 kilo bakarrik nituenean, bigarren enborrera salto batekin aldatu nintzen eta segituan hartu nion aurrea.Nire salto horiek ikusita;

- Hemen benetako xagua Orandakoak ematen dik. Esan omen zuen Luxiak.”

* * * * *

BEDAIO

■ “Matxinbentan Santa Agedatan izaten dira pestak eta bertako tabernariaren lengusuak, iru aizpa, Bedaikoak ziran. Guk artean Bedaio nun zegon ez genekien eta aieri galdetzen genien:

- Bedaio ori nun tzion ba?.

Eta aiek parrez erantzuten zigutenean:

- Bedaio nun dagoen?. Beera iota.

Eta gu alkarriz esanez:

- Auek ere baditek bertsolari sena.”

(Azkoitia)

OILOLARRE ITZAIN¹⁵⁾

■ Oilolarre itzain ibiltzen zen. Harrobitik hatria, hondarra eta abar ekartzen ibiltzen zen. Iheltseroen zerbitzua egiten zuen. Uztarrian idi-behiak erabiltzen zituen. Alde batean idia eta bestean behia.

Behin bidean bi apaizekin topo egin zuen. Erretorea eta beste apaiz bat. Erretoreak esan zion:

- Joxe Mari! Behin honezkero, zure idia eta behiak bakarrik ere egingo lukete harrobiko joan-etorría.

- Bai! Berorrek ere, hogeita hamar urte meza ematen ihardun arren, oraindik laguntzailea behar izaten du.

MATXINBENTA¹⁶⁾

■ “Bueno, e, bost erritara, baño inporatanteenak, garrantzi geien dutenak o baserrí geien dituztenak Beasain eta Azpeiti dira baña Beizamako baserria ere, orain egindako potzu orrek azpian artu du baña, bazuen baserri bat Beizamakua, eta beste lau bos bat baserri Itxasokoak eta baita ere Ezkiokoak.

Beraz, aita Lasak esan izantzen, eta bere liburuak badakar; “Matximentan maai batean jar zitezkeela bost erritako alkateak, beren erritik atera gabe.”

(Azpeitia)

14) Agirre, Joxean eta Maria, Joxean, Joxe Agirre. *Markotaren maituna. (Bilbao eta bertsoak)*. 1999. 40.esn.

15) Amerista, Xabier, Herri eta Irri.2. matild Euskarra bat. Donostia, 1983. 158.esn.

16) ETB 1-eko Esanak Esan nizuna, 2001eko iniziaren Juan Nikolas Sogrilok konstitutuak.

SALDA

■ Bestalde, hainbat taberna eta ostatuta saldaren ordez ur epela ateratzen dutenaren kontua oso ezaguna da. Honela, Azpeitiko Izarraitz auzoko Bildotsola baserrian taberna omen zen garai batean eta hau esan digu berriemaile barek:

- "Bildotsolane taberni uan, da an berriz, saldi eskau ta, izerran lekun bizerra."
(Azpeitia)

Ordea, kontakizun honen antzeko beste aldaera bat ere jaso dugu eta jarraian azalduko dugu:

OILOLARREREN SALDA¹⁷

■ Bazem azpeitiar bat, "Oilolarre" esaten ziotena. Igande goiza zen eta Oilolarre mezetara joan zen. Meza ondoren tabernara joan zen. Beti bezala, Oilolarrek eta beste zenbait lagunek salda eskatu zuten. Saldarekin batera edo saldaren gainean, beste zerbait hartzeko ohitura ere bazuten. Okela egosia edo. Horregatik neskak Oilolarteri galduetu zion:

- Oilolarre, zuk zer nahi duzu saldaren gainean?
- Izarrak!- erantzun zion Oilolarrek.

FESTAK

■ Azkoitiko Martite eta Elosu auzoetan, egun festa egun gutxi egiten badira ere, garai batean, festa egun asko izaten omenziren, esaterako Martite auzoan, San Emeterio eta Zeledonio eguna, pazko aundiak, abuztuaren azkenendo domeka etab. Horri zela eta, Migel izen zuen Aizpurutxoko mutil batek honela esaten omen zuen beti:

- "Elusun da Martitten, festak baita kattarran eunine."
(Azkoitia)

PANDEROJOLEAK

■ Lehen aipatu legez, Iraurgi bailara, sofiujole eta panderojole batzuen sorleku izan da, eta hori dela eta, panderojoleekin zerikusia duen eta bailaran entzuna den honako esaera hau jaso dugu Azpeitian:

- "Pandeojole langilleik ez ementzioko."
(Azpeitia)

LARRABEHIA ETA NAGUSIA¹⁸

■ Matximenta auzoan jasotako esaera da hau.

- Ama Birjina Martxoko lora, larrabehia mendian gora, esaten omen zuen nagusiak. Larrabehiak, ordea, eskarmentu izaki, honela erantzun omen zion:
- San Markos noiz da? artean ere goiz da."

17) Amuriza, Xabier, *Horri eta irri/2, mailat Euskara bat*, Donostia, 1983, 157.or

18) Zaldu, Antonia, *Esterre zaurren Bilduma Berria (I)*, Azpia Txikitegia, 1985, 116.orr. euska.

ARTOA¹⁹

- Matxinbenta aldean honela zioten arto kontua zela eta:
"Artoak San Juanetarako zozoa estali behar du. Era San Pedrotarako belea."
Eta honela esaten omen zuten hor nonbait kosta aldetik:
"Eta Santiagotarako zezena".

GARIA²⁰

- Azpeiti inguruan honela dio esaerak:
"Gatia ez da gero garoa".

IZARRAITZ²¹

- Azpeiti aldean, orain oso entzuna ez bada ere, garai batean honako esaera hau oso ezaguna zen:
"Izarraitz hostotu ezkerro, artoa erein leike."

SAN MIGEL²²

- Azpeitiko Aratz-erreka auzoan honako esaera hau esaten dute:
"San Miel urriko, liñoa orri biko."

TXORIAK²³

- Esaera hau ere entzuna da Azpeiti eta inguruetaan:
"Txori guztiak mokodunak".

GAITZA²⁴

- Pegakorrak diren gaitzak direla eta, honela diote Elosu auzoko bi berriemailek:
"Gaitz peakorrak: tifusa, elgorrixa, paperak, kukurruku-eztula, ptxukua, naparretixa, 18ko gripia. Esaeria ba dao!" gaitzai ostrua bada're parian ipiñi biar jako gaitzai kontra eitteko".
Elosu (Azkoitia)

19) Zaula, Antoni, *Esaera zaurren Bilduma Berria (I)*, Argos liburategia, 1985, 254. orraia.

20) Zaula, Antoni, *Esaera zaurren Bilduma Berria (I)*, Argos liburategia, 1985, 1.233. orraia.

21) Zaula, Antoni, *Esaera zaurren Bilduma Berria (II)*, Argos liburategia, 1985, 1.732. orraia.

22) Zaula, Antoni, *Esaera zaurren Bilduma Berria (II)*, Argos liburategia, 1985, 2.593. orraia.

23) Ezkerri, P., *Esterza zarrak*, Argiara Egunkaria, 1933, 53. orr.

24) Góti, Alentxa, *Blosa-Bergarako Etnografía*, 121.orr.

Auzo bercko beste berriemaile batek honela dio:

■ "Gaitz peakorak asko die: tifusa, sarnia, gripe. Elosun 1918garreneko gripe garaian iru gorputz batea ekarritako euna izan zean; gabian ekartzen zien, kajetan. Esaera ba-da: "gaitzai parian orbel a baño ezpacere ipiñi".

Elosu (Bergara)

MOTA ETA NESKA

■ Duela urte batzuk, erromeri ostean neska laguntza izaten zen eta une hori noiz iritsiko zain egon ohi ziren sarri gazteak. Ordea, ibilera luzeak egiten ziren baserrietara neskei lagundu ahal izateko, orduan, ez baitzegoen batetik bestera mugitzeko egungo erreztasunik. Orduan, txirrindulaz, motoz eta ahal zuten moduan ibili ohi ziren gazteak. Egoera honetan oinarritutik, batez ere gazteek, honela esaten omen zuten orduan:

"El que tiene Vespa tiene neska y el que tiene Osa mas hermosa"
(Azkoitia)

2. Pasadizoak

KOLERA²⁵

■ "Bergarara kolera erori ei zan da bertan gelditru; nete amonai entzunda daukar, ta San Roque etara zuen elizatik kalera errogatiba-moduan, ta gelditru eñi ei zan koleria; ordutik San Roque euna jai da."

Elosu (Bergara)

APAIZETXEN

■ "Erezillene ortxe ipiñi zituen bi asto balkoyen. Baita ariyere, astuak ta aari aundiye ta danak jaso zizkoen apaizei, apaizetxen. Erretorie urrengo goizin are akordau zanien astu goyen."

(Azpeitia)

Ordea, ez da astoak nora edo nora igotzen dituzten lehen eta azken gertakaria Errezilen gertaturiko hau. Izan ere, honela kontatu digu berriemaile batek:

■ "Errezillen emakume bat joan omen zan erosketak egitea era denda aurrean omen zegoen eliza eta kan-pantorreko erlojuaren pixuak beettaño jetxita. Eta, emakumeak pixuai lotu astoa ez alde egiteko eta bea

denda barruan zala, sakristauak erlojuari kuerda ematen asi eta pixuak gora astoarekin batera. Emakumea atera da dendatik era astoa falta!. Eta alakon baten konturatu da an kanpantorrean zegona anakak mogituaz korrika balijuza bezela."

(Azkoitia)

BOXEOLARIAK

■ "Uzkudun errezildar boseolariaren garaian errezildarrak ez omen zuten pasatzen jai onik alkarrekin burrukan egin gabe ta, bein etxera zijoala gabaz, aitak erten omen zion bidera eta burrukan asi semeari elduta.Eta semeak ezautu ez, nola illun zegoan, eta irabazi semeak eta aitak esan omen zion;

- Orduan, au dek poza!. Ni ere oso ona nauk burrukan baiño semeak irabaztean nire oso arro sentitzen nauk itekin."

(Azkoitia)

SAN JUANETAKO MARTXA

■ "Atzerrekatik bera zijuttela, Troxkie ta Txokolo, Ttinidadetan, Toalleko aldapatik bera eroi emen ituan, da danboliñe goyen da ue bajau eziñiken earrak izingoituan!.Ixtoriye aspaldiku da ori, e?.Arrezkeo, San Juanetan an pieza bat jotze ementziaben, geo, San Juanen martxie urrungo urtetiken autrea."

(Azpeitia)

SAN ISIDRO EGUNA

■ "Ba, beste istorio bat esangoizuet. San Isidro eune aurere ta, eukiko giñuzen emezortzi o emeetzi urte, nee anaixe ta bixok, anai zana, Joxemai zana, ta bixok. Gerri akaau zan, da San Isidro eun baten etorri zan Bergaako kontsejal bat, Elusun piñurixe ezin botata. Erri sallik, aspaldi bota zittuen piñuri aixek. Beste piñu klase bat zeuen da, neki geldiu zan. Bai, andik gora, Iturbia, Bentosteko Joxek lana eitte zun ba, antxe inguruuen. Da, atte zanak aindu, San Ixidro goizin lana eitte genun zeoze bañe, atsaldi ez, erdi jai eo ta. Gatzik era zarrak eta peixe izetezan Antzuolan, aundiye, ganaue ta zea ta, gaztike bai. Da, ala, aindu ziyon arek gu juteko ta, atsaldin, area eur biltzea. Eur pillak eitte giñuzen geo sue eitteko, geo ordutxe zetorren gerrik zeingo giñuzen eunek. Gerra ondoena, gerra ondoena da, area jun ein ber!. Geer denpoan zea eintzeben geñea, moztu eintzeben erdi ingurutik, garbitzeko.Gorriziek, gorriziek ikuste zila or!.Garbitzeko ta geo, alambre esixe itxiturak eitte zittuen, itxiturak, iñio sartu etzaixen, alambre zeakin, aantzadunekin. Da, aentzako elosi iteko ta, eur meie zeuen. Geo, bota eintzittuen, bota o erdi bota, txarrikei einde laa zeben. Ta, ordutxe gerriku estrañau, gerriku galdu!. Nola loture jakin ez artin de?.Bañe, guk gazte gaztetik ibilte giñuzen gerrikuek, ikixitte eongo nitzen!.

Joder!, beste laun danak zea, Antzuola ta gu aral!.Ta, gerriku berri berrixe estraña nun, da jornala amaike pezeta emantziun, eta aure amabi gerriku aure!.Ona zan gertikue, asteuneako, mateil asko beintzet. Da, gerriku galdu!.Da etxea etorri, Elusua etorri tre, amaike pezetako aure Bentan gastau giñun, afaltzen, Elusuko Bentan, telefono lekun. Bai!, gue jornala lekutan gea uan!, de dios!.Ta gustoa jun ez!.Zea, Antzuola jun da neska launtzea jun ber giñuna!.Joder!. Eur biltzen!"

(Azkoitia)

JESUS

■ "Ganauen askan sartu ementziyean Troxkie, zeak, beste orrek. Besti uan txerriye aundiye aure, Txokolo! da, ganaun aska sartu ra, al Jesus jayoek beñepeñ delesan ementzoan. Jesus jayoek!. Parre earrak inde sartu dek ganaun aska ta bestiek, trasti ta ze ibilli zan, da, jesus jayo dek beñepeñ, etziok kuidoiken!"
(Azpeitia)

APAIZAN PARTEA

■ "Bestea ere pasa izan bear zun, apaizak sermoitikan ésan ukabillakin barandilla joaz, lur gainean sortzen dan jeneroa apaizarena zala eta ez aazteko andik parte on batzuk berari ematea. Ori entzun zuanean baserri-tartakurrengo urtean soro guztiak patata egin omen zituan eta patata nola ez dan egoten lur gainean, bate-ire eman bearrik ez omen zuen izan."

(Azkoitia)

DUBRO BAT ETA BI ANAI

■ "Beste pasarte bat ez dakit nun pasia edo izangoan, bi baserritar, anaiaak, oso oso leorrak omen zian basamortuko ogia baino ere leorro ta jai eunetan mezeta ordu ezberdinetan joaten omen zian, bat zortziretako eta bestea amaiketakoa. Bost pezta zeuzkaten aorrauta eta goizean jutzen zanak duro ori emaren omen zun baezpare ere premia izan ezkerro gastatzeko, al baldin bazun inola ere ez, eta gero etxera etorritakoan bestea amaiketako mezeta joaten zan bere, len beste anaik ekarritako duro ura arruta, ortara duro batekin moldatzen ziran bi gizonak."

(Azkoitia)

JAIKITZEKO ORDUA

■ "Ortan, morroi baten pasadizoa etortzen zait burura. Morroi ori joan omen zan basatri batera motroi eta illuntzean, oieratzerakoan nagusiarri galdezu:

- Bihar goizean noiz jeiki bear det?.

Eta nagusiak erantzun:

- Ikuluko astoak arrantza egiten dunien.

Ala, nagusia goiz jaikitzen omen zen era ikulura jun eta orduan, astoak oitura omen zuen arrantza egiteko. Baño oso goiz etaurrego egunean ere berdin. Baino ureengo egun ortan morroiak jaiki zanean egundoko makilkadak eman bizkarrean bera, eta orduantxe izorratu despertadorea. Eta nagusiak ikusi eta esan omen zion:

- Baño baño ze aiaiz? erotu al aiz astoa ola jotzeko?.

Eta motroiak erantzun:

- Bai, despertadoreak konpontzen ari naiz.

Eta bai konpondu ere. Ordutik aurrrera ez omen zuen ain goiz arrantza egin eta ez dakigu noiz jekiko zan dalako motroi ori. Berandu ez nagusia goiztarra bazan."

(Azkoitia)

ASTOA

■ “Bein ola Santa Lutzi egunean denbora aieran Zumarran dana astoa saltzen zan zaldia osó gutxi, orain batekoz bestea bada ere, eta Atzerrekako gazteak asto txiki bat eraman zuten an saltzeko asmotan eta saldu ez eta atzera buelta eta bidean, pasalekuetan danen artean altxa bizkarren parea eta pasatzen omen zuten. An jendeak esaten:

- Estos kaseros!.

Eta horietako batek erantzun omen zion:

- Nosotros como somos agricultores, no tenemos cultura.”

(Azkoitia)

Antzoko beste pasadizo bat ere jaso dugu liburu baterik:

■ Kaletarra, berriz, baserritarak bezain euskaldun ziren Azpeitian. Komentuetako mojarik gehienak, Loiolako jesuita batzuk, eta kuarterlean zeuden sei guardia zibilek ez beste denok genekien euskaraz. Seguru asko, giro hori ikusita galdetuko zion biajante batek Azpeitiko dendari bati:

- En este pueblo habrá mucha agricultura, ¿no?

Eta dendariak, gaztelaniaz ziharduelakoan,

-No, no. También hay burnikultura! -Ordurako mekaniko taiier gutxi batzuk hasiak baitzenden tornu eta horrelako makinak egiten.'

URALITA

■ “Beste batean, au ere Nikolasa apopilo erxeko neskazarrak kontatua da, bazan Zakarias izeneko linternero bat eta arek uralita berria jarri tollatuan eta kobratuta egon arren, berriz hamabos bat eguneta joan omen zan ondo jarri ote zun begiratzena.Ori bai lana kontzientziz egitea.”

(Azkoitia)

SU-KANPAIAK

■ “Erdoitzane erromeye earra itean, oetaka neska iguel juntarzeituan, eundoko neska pillie. Ta beñ alaxe, Lajak an soñu jo bertziala ta abiayu gaituk biyok. Eundoko biri indiau te allaeran bagiñean guk orruet desditzie ta, asi gaituk kanpaeik jotzen. Joñol, allau geala ta, jendi kontura zeyen da, guk kanpaeik jo ta su-kanpaeik izen. Joe!, aure uan, Granada ta inguruko baseriyetako eriyue!. Nun o nun sue zalakun ayek eta. Ein giñean earra ordune.”

(Azpeitia)

HAITZA

■ “Erromericik bueitan bazatorrek mutil bat eta, aitz baten gañin zeuela ta;

- Emen saltu eon berdipa. Pentsatze ementzian bere artien.

Alaxe, bazparere, eune zabaldu arte antxe eoti obe izingouala ta geldiu dek antxe. Eune zabaldu zunin beitu ementzian beera ta, zea, guardesolan makillie atata ta, beye ezin jo, lurrik ezin ikutu*.”

(Azpeitia)

ERREGISTRATZERA

■ "Gizonan atte petixen tzan, Zumarran tzan perixen eta Aizpurutxon ertenda, trena, ain zeainde baator andik onurz te, an Aisterrin, auzoko etxe baten etxi erregixtrau zebela ta Goenara juntzila geo. Ta Goenako andrik ogi masi ementzauden einde eta ximaur pillin sartu ementzen erixun. Eta beste urrengo etxien, arek pasau bertzun parien ai ementzin guardazibill oxek neurten, garixek eta zeak.

Etorri zan atte ori etxea, bazetozela guardazibilek etxi erregistratzea ta aure zan erixuel. Bete zakuka gari xe ta ata basoa!. Gizona gañea gerrixe zeainda zauen da etzan gauze. Atte zarrake nolako zakuka gaixek ata zittula ordun!. Eta beste goñeta bat ezkonduta zeuen ordureko bañe, gurea etortze zan beste goñeta bate Gabirire ezkondutakua. Zea, ogixek artu zittun da txitxulapille baten izkutau zittun, bestik iriñe eztakit noa izkutau zun. Gauze danak izkutatzen da, aure zea ibilli giñen ba ta etzitzazkun etorri goardazibilek. Urrungo egunin da jundie zakuka gari ori ekartzea zeata, attek ezta ikeraike!. Ta bezperan bearek emandako zakue!. Nerbixuk ze inder dun e?, ezin ekarri!, gizon zarrak, enel, oker oker einde!, ze istillu!. Bañe carrena zan ximaur pillen sartu ogi masie, auxeba aldrebesa!, etzan izingo txukune!"

(Azkoitia)

GUARDIAZIBILAK

■ "Zenbat goardazibill dare eukitze giñuzen?. Etortzezin aizu te, egun baten akordatzenaiz, gurin bi neskame zeuren gañea ordun, bi neskame ta morroie ta ibiltze giñuzen, morroe ta neskami ta, lana zan asko, terreno ikeragartixek die. Eta San Pedro eune ta bi jei zin beintzet illedan, eta mezteran izenda Urratein da etorri nitzen etxea ta neskame batei esanixon:

- Goardazibilek antzauren.

Askotan eotezin.

- Auei amarretaku eman deixoun, jun daittezen.

Nik ez uste asek euskeraz entendiuko zebenik era, barek esantzin ezetz, urrungo egunearte antxe eonbertzebela, aizul!, aure entendiun zunin. Ta antxe lotane ta, ifno sentitze baldin bagenu dexe kuirun azkar kasoa iteko aixei. Aixek etzakeben ala eoteko deretxoiken!, aixek earki izkutante an!. Oñ konpaa zisko batea ertzañek jun de etxe baten lo itten gerauko bali bezela?. Aixek etzaukeben an lo eitteko ordenaiket bañe, askotan ibiltzezien e?. Aaa!. Denpori pasau!, bapo!, ibillli olaxe!. Zenbat aldiiz goardazibilek nazkau!. Azkenin tiroz illtzeben goardazibill aure ementxe, Axkoitxen, Gorrixe o. Amaika amorrzu emandakuna unan. Aretxek esanrzine, alperrik emango níxola amaiketaku, urengo eunartze antxe eon bertzebela.

Utse gañea, jaten emati etzan cze, aldeingo bazukeben kanpoa!. Lo ein de dana!. Ta sukaldetik aldeiteen ez gañea, arek ematezuen amorrue!. Jan da iziteaba kanpun ibilli o!. Antxe sukaldin jarri ta antxe beti, antxe beti eotezien. Antxe!. Da baite eun batzutan iguel soun bestik bazebiltzen antxe soa jun da ibilli iguel da, soun bai ibiltzezin. Oñ, bueno!. Alakuk elizke bela ametiuko!, gure bizimorue latza izintzan."

(Azkoitia)

TXERRIA ETA ETXEA

■ "Txarri batek hamazazpi ume intzittun eta asi giñuzen hamalau. Hamaika titi zauzken bearek, txerrixek, eta hamaika bearek asi zittun, beste iru botilletik asi giñuzen, hamalau txerrikume asi giñuzen. Txerri baten umik, txarri xen umik preparatzeari iruillebeteako ola saltzeko.

Jun giñen Elgoibarrea saltzea hamalau txerrikumekin eta hamalau mille pezeta pasa artu. Ta axekin etorri etxea ta beste pixket ipiñi te amaxei mille pezetan pixu artu genun!. Oñ artuizul!. Errixin, elizkin ondo ondun bañe zaarra zan!. Azkeneku zan da beti itukiñe o ezkenun gustoko leku beaure ta geo beste bat artu genun."

(Azkoitia)

ERDERAZ IKASTERA

■ “Erdeaz ikixtea jun giñen, Bitor zanare bai, nee anai zanare bai ta, Elosutik asko, ordun danak jutezin.Da, arbittea bialdu nabe ta, beste morroek baño geixo eaman nai nik, jornal aundixaña ta, ostuk bota nizkon azpira, ta, arro arro. Geo, onduekin, onduakin, ondo arekiñ, bixti aundiixe, jaso dana, dio!.Inder asko,

- Tiene mutxa fuerza!.

Otaxei urteko mutille ta, nik amabi, amairu inber, umie. Erxea jun de, bota det eta, ikusi arek osto pilli nola zeon.Zabaldu zun da, joi!.Geo, danai esate zixon:

- Este!, este me a etxo bueno!.”

(Azkoitia)

ETXEBERRIA

■ “Or bada ba Patrizio Etxeberria, Legazpin burni fabriki dakena, ba are lan baretik bestea aldau ta aldau ibilli ementzan, ta garai artan lanez orrenbeste aldatzi gaixki ikusiye zeon, bat billau ezkeo bertan mantendu ta kitto! Izitezan. Ta olaxe, beak ermaztetzar artu nai zunai, gurasuek ez lagatzen Patriziokin ezkontzen, lanez geyegi aldatze zulata.Patriziok berriz ala esate ementziyon:

- Eon lasai, nerekin ezkontze bazea, ondo biziko zea.

Ta azkenin ezkondu iñ ementziyen, naizta gurasun permisoik ez euki. Ta geo arrezkeo ze irabazi izin dittru-en?Are oso buru argikue izen da, arek batin ta bestin ibiliyez, burniyen templie nola arrapau ikixte ementzun, leku bakoitzin nola itezeben.”

(Azkoitia)

TRIPAUNDI²⁶

■ “Garai arran izaten ziren baita, baserri batzueran, jan trukean etxeko irakasle.Oietako baserriak ziren: Bizkai-Itutti. Agerretxo ta Errekarte.Ba dakigu, baita, Errekarten zer gertatu zen “Tripaundi” zeritzan irakaslearekin.

Patxik seme-ordeko Batista, zurrutero xamarra zuen. Eta etxera berandu zetorrelako, mutilla astindu naian, ate-atzean zai zegoela, mutillaren ordez “Tripaundiri” egurra eman zion.”

3. Gertaerak eta bitxikeriak

EZKON AURREKO BORROKA

■ “Len ezkontzeko libertadie etzitzekon alabai ola ta ola ematen ta nik aitu izindet burruka lekun bat ba omentzeon Azpeitin kalin numbaitin. Ta neskiei ezkontzeko libertadie emateko burruka ite ermentzeben attek eta suigayek. Ta suigayek atte menpeatze bazun, ezkontzeko libertadie emate omentziyoben, ta attek menpeatze bazun bestie, ordun ez.”

(Azkoitia)

²⁶) Iñakiarraindeta, Gabriel, Errekarte, Landa ta Anai Gorrate (zehaztut esangurri), 64.ora.

URREA

■ “Bein Arantzazu aldean nenbergilela gizon batekin egin nuen topo eta esan zidan Kataberako minetan egon bear duela alako koba edo aterperen bat eta bero aundia egiten zunian ardiak an sartzen zirela abaroan ego-tea eta koba ortan zeuden urre izpiak illean pegatu zitzazkien. Gero udaberrian illea moztu eta tonelada asko Inglaterrara eman zituztela eta an antzeman, ardiene ileak zeukan urre izpi oiek eta asi dira galdezka ia nongoak ziren eta Urbi alde ortakoak zirela eta ola aurkitu omen zuten mina ori.”

(Azkoitia)

AZUKREA

■ “Ementxe Samartin aldin andra batek amairu ume izintzittun, eta amairugarrenaren izintzunen azukreik ez, umeik ixildu ezin, bularrik ez, ta zea gozarzeko azukreik ez da iñundik iñoa umeik ixildu ezin da, an aldameneko andra batek tazaka bat azukre emanomentzixon. Amairu ume izintzitrua bafie alako bixjitaik etzu-la izen esate ementzun aizupentsaizu ze mixeri eongozan, ze mixeri!”

(Azkoitia)

POLILLAK

■ “Epelde baserrira ezkondu zan andrick orrenbeste ume izen da gosiere latza ordun da, arek esan oi zuen, bere umetako batek lurretik polillak o, beste egurre zulatzeben oyek, artu ta jate ementzitun.”

(Azkoitia)

BI ERABAKI BEHARREKOAK²⁷

■ “Herriko agintarietik eta beraientzat hattu zituzten bi erabaki aipatu nahi genituzke. Beraietako bat 1743ko martxoaren 17an hartuko zuten, ikusirik udalbatzarrean esaten zen guztia berehala zabaltzen zela herritarren artean. Ezinezkoa zen horrela jarraitzea nonbait eta beraientako batek zerbaite esan zuela jakiten bazuten, 100 errealetako isuna ezarriko zioten handik aurrera.

Beste erabakia 1762ean hartuko zuren berriz, ikusirik batzarretan irakurtzen ziren agindu era idatziz guztiz ak erderan zirela eta askotan bertan ziren artean ulertu gabe gelditzen zirela bat baino gehiago:

“Dijeron que por cuanto a las cuentas de la Villa y ordenes, despachos y otros papeles que se leen en el ayuntamientos en castellano, no comprendian bien y sobre los puntos para tratar seria mejor el que todo se habla-se Bascuence, y a esto decretaron que en adelante se hable Bascuence para que puedan hablar con mas satisfaccion dando cada uno su sentir”

APRETARIEN TXANTXAK²⁸

■ “Garai batean, herriko toki guztieta arituko ziren beraien lanean azkoitiar apretariak, eta jakinekoak zen beraien artean solasaldiak hartuko zituzteia tarteak.

■ "Gero onek, Martittek, euki zuten zeare bai, Axkoitiko kargure bai.Len bedeinkaziyu itezan, zean asi, ori konjuru esate zitzekona, maiatzaren iruen, ibinentzio de la Santa Kruz, iziteaba, ta gero, katorze se seti-enbre, exaltazion de la Santa Kruz.Tarte ortan konjurue esate zen, apaize bertan eotetan ba beti, noiz o noiz ba, entierroa ta bajatze zan bañe gañontzin berta, Martitten, beti or, neskamem batekiñ, bere baatziere bazuen da, aurreciyokuei, eztikit gutxiorabera, oñi eun bat urte, batte beyeke, bei bat eo bi eukitzezitun ifiolaze. Da erri guziko bedeinkaziyu eittie, artu eñi, eittezan, maietzen, gariye ittezenun, eta bitze zin arrautzak, batzuek iru arrautz ematezituen, bestik dozena erdi, ta olaxe. Ni ibilitre nao neu, apaizekin bedeinkaziyu iten, otarrie o sestue o ze esangoizupa, saskiye o artu era arraurzak besun nittula. Nauzken ba beatzi o amar urte eukiko nittun ola ibiltze nitzenien. Ba esan dizutana, eska ori o bedeinkaziyo ori itreko, ota-rrri artu eta erriyen biltzen ibiltze giñen lendabizi. Gero aostun itezan herriz artuena, artue, gaur ezta artoik

ei-eten, esaten gutxi, gariye berriz iñun ezta emen eitten, da orduen ballarakuek ollaskuk zeaitezittuen, ollasko parie o genealin, era onek, Martittek zauken eskubidi erri guztiyen itteko, Gero, ni akordatzeako kendu zeben zea ori, erri guztiyen eitte ori kendu zeben, ballaran ibiltze giñen bañe erri guztiyen eittie kendu intzeben. Nunbatt parrokiye beak kejaute eon o ta.”

(Azkoitia).

Azkoitiko Urrategi auzoko berriemaile batek berriz, honela deskribatu zizkigun bere auzoko bedeinkazioak:

■ “Bedeinkaziye bestie! aure izitezan zea!. Apaize jutezan baserrixeta sankristaukin eotezan, esku batekin, oterrekin gizonezkue, eta bedeinkazixue eite zuen, leturetxo bat ein de, ur bedeinketue ataitik ola, erramu batekin astindu*, eta ordun emate zitzekon dozenaerdi arrautzie o dozenie o, zuk borondati zendukena. Otarri artze zun gizon arek, eta geo apaizel, ollexko parie etxea. Oñ, beeinkazixo danak gastau die! kotxin beeinkazixu bakarrik oñ. Len eozer gauzeatik, eozin labore o ta, beeinkazixue. Oñ!. Jendik tamañi artuixo, bail.”

(Azkoitia)

Bestalde, Azpeitiko Izarraitz auzoko berriemaile batek bere gazte denboran egiten ziren bedeinkazioak honela gogoratzen ditu:

■ “Bedeinkaziyu zaliiek nola ibiltze zien?. Etortze zin mayo junio, junio etortze zin bedeinkaziyuiek eta etortze zin da, etortze zin etxea, botatze zeben etxetiken ur bedeinkatue, eta baserriye ta kanpu, dana bedeinkauta geratze zan. Ori iteko, gero emate geñon momentuen, momentaneuen izitezan dozena erdi arrautzie, xei arrautze, xei ta beatzi baldin bazauzkezun, beatzi, klaro!. Eta geo, dizienbre aldin, gabonaldi-en, eman ber izitezin olleskuk, olleskuk ta arraurzi ta, de todolayek etxi bedeinkatzea etortze zilako ta.”

Honela, bedeinkazioekin zerikusia duten hainbat pasadizo dakizkiela eta, honela kontatu digu berriemaile batek:

■ “Ni juniczen lelengo urtin, beatzi bat urte eukiko nitun, da Don Lorentzonea.

- Ta, ene bal! Eta eztakize! Ta ene! Ta ala!

Ta bueno, buen agradecido. Eman nixkon nere oyek eta geo San Agustiñea dotriñea jun giñen da, baakizu, neska kozkorra ta, geldi eongo nitzen, zuzen zuzen eongo nitzen baño!. Blalbelarrondokue. Osea, bi aurpegi oso diferente ikuste nitun, dotriñea jundakun o errealkokin jundakun. Eta, lelengo eman da andik bela-xe belarrondokue.

Ta, geo etorri zan biarren urtie ta, amak;

- Bai, junai.

Ta ala, arei eman berrin, saldu ta botak eros!. Geo mendaerratzak ein da diru pixkete aortatze genun, kuadro audi bat eotezan da, da!, botatze genun kuadrunk atzea. Ostias gasrau!. Da, lonazko zeak lelengo azaldu zinak, zaparille lonazkuek bañe bota tipoa, errehueña danin txuriye ta bestin beltza.Ta, lelengo nik erozi nitun emen ballean e?. Ta balian oxentxa pesetas. Trentaizinko pesetasen ollexkuk saldu plazan, trentaizinko pesetasen saldu, da, geo kuadrun atzeku kontau ta, beste patata pixket saldu, ta botak!. Zazpi zortzi urtien ayeke eskun emate nitun,e?bai gustoa, goxo goxo!. Geo bestik andik gerotxuo erozi zituen olako botak baño, beintzet nik lelengo. Ta, gure etxea notiziye iguel lelengo urtin erzan alleako baño, etorri ittea ori.Ure da dardaraie!, ure da dardaraie!. Ze inun dirukin da, artu botak eskun da nearrez;

- Auek erosí nitun!.”

Ordea, pasadizo honez gain, bedeinkazioak zirela eta, beste pasadizo bat ere kontatu digu eta honela dio:

■ “Nee gizonake ala eniementzun. Astearren baten o etorri izingo zin bedeinkatzea ta, iñor ez etxin. Da, amak, baakizu, etxin ber izitezan da, etxin zeon dana kalea emate zan etxea zeoze ekartzeko, berko eman da, mayen gañin laa ementzeben bedeinkatzalle oyek eta;

- Nik oin ze in ber det?.Nee gizon orrek, muti kozkorra ta.

- Ementxe etzazkepa arraurzek prallick?

Artu ementzun tarterie, da otarratiken xei arrautze plateran ipiñi ementzixkon da, Felix sankristaue, izenake oindik gogun dauzket.Ta, ja, ja, ja!. Parre inde, alde ayek bedeinkaziyo oyek emanda bañe, beak ekarri-tako arrautzak atzea beak eman!.

- Ze itteu orrek Juan? Amak esan ementziyon da.

- Bai, beak otarrakae ekarri du ta nik bertatik arrutze eman diyot.

Ta, paso!."

(Azpeitia).

Berriemaile batek ostera, orduan Urrestilla auzoan apaiz zegoen Jautarkolek, erreenteriako euskal idazlea, bedeinkazioak egiten ibiltzen zenak, eta bedeinkazioa egitera joan eta zer egiten zuen kontatu digu:

■ "Don Luis zana zan, jœ! tipuel!.Ta Artza baserrire jun da ta, otarri betera jungs zan da, je!.Laatzeko danak kontauta laa, Artzan otarrie. Uf!. Arek amai kobrâu inementziyon geo Urrustillen zea eotie, eunek pasatzea junde apopillakie!.Diruxale!. Apaize zan ure ta, Artza bedeinkatzea jun, ta ordurako baserriten otarrie bete izingo zun da, otarraka aure laa ta beste otarrikin jardungo zan andik atzea bañe an laatzeko otarraka aure.Da;

- Auek kontatu ein beat dia bazpare!, Jel.Ombre!*

Atea otarratiken da, kontau dana zenbat geldiu zin.Amaire arek kobrâu inementziyon eštantziye zein, Urrustillen, bail!. Ta aberats kumak!. Errenteiku zan, liburuk eta eskribitze zitun ori, ta firmatze zun *Jautarkol*, Jauregitar Luis, Jauregitar Koldo. Ba auxe zan, apaiz oixe zan.Axkarra zea bañe, pexetero!.Pexeta!.Zea, kabrito utz utze!.Urrustillen eonrzan da geo Zarautzea juntzan, Zarautzen ilrzan.Nik ezautu nun are. Motor guxi aurrenengotaku aek, ibilli zan emen. Guxi, bere matrikula ta guzti. Da, ate jun da Nuarbea, apaiz ori ta, Kopi zana, Fausto Kopi, da ure danaitezizion ba batenbat da, jœ!.Arek ez arrankau motorra ari!. Joel, bai mantzuatiken!.

- Pero ombre!, moto oni ikutzen dionak,-ta ni umie-, Juan demonioakin inpernuetan izango da!, Juan demonioakin inpernuetan izango da!*

(Azpeitia).

SAN JUAN EGUNA

San Juan egunean Iraurgiko auzo eta baserriean zituzten usadioak ezagutzeko, Martiteko berriemaile baren lekuoa jaso ahal izan dugu eta honela azaltzen du berak:

■ "San Juan eunin sue emen eittegenun berezin, da bai, ortako, San Juan eunien eamatezan erromelletie esatezitzekon zea, lorakin de indeko zea bat, eamatezin, nola esangoizupa, batzuk sorti esateziyoen, eta zea, lorak era ipini era gero, keixie, zerezo o bada ba, arana, esan det gariye nola eitorean, espiga de trigo, burue, gero artuere bai, artue txikiye eotezan da arto landarie, artolandia txiki bat, oxe dana zeain, altzan dotorina ipiñi te, fruta zeak emate zittuenak, ostin ze eamatezittuen, oyek bai beintzet, keixie, saarrare igul, aranare batzuten ipintzezitzekon eo ori, gariye, artue, oyek. Bedeinkatzezan elizan, meza aurrin o ondorenin genealin bedeinkatzezan da gero eittegenduen ba, ate gañien gurutzie ipiñi, ostea, sootan sartzezan makilla bat bezela, makille bat, oitturie ba zan, ola, pitzzatu bat eiñ eta eur pusketa bat kuutzi bezela.Orrekin ipintzezitzekon gañea sorta orri, erramillete ipintzezitzekon ezpata belarra esatezikon, emenrxo bertan dao, nik or ezautu nuen da oindiken or segikoyo, ezpata belarra, zinte ola zabal zabala, kuutzi bezela, eurre ta gañea ori sartzezitzekin. Sarrerako leyotan da ate gañetan da, leku danetan ez bañe ola, ate gañetan da, etxin sarrerako zeatan da.

Oñ, erremu eunien, ordune erremu eunien ittezan ori, erremu eunien bedeinkau ittezan, ta gero, or esan

dizut, ori inbenzion de la Santa Kruz, Santakutz eunien eittezin gurutziek, aura josi ta ipintzezin.Eta gañontzin sue, San Juan bezperan illuntzin, oindik eitten da, urtero.Bakoitzek bere etxekue ta oti aurretik eztakit noiztiken zeaingo zan, San Juanetako kontu ori.

Bueno ba, San Juan Azpeitiyene, Ofietzen eittea San Juan ta Urrustillene bai, zelebratzea, Martitten ez, arbol de San Juan esatezakon zeaoietako tente ipini plazan sartute ta alakuek. Amen alkoik erzan. Len esan dizutana ba:, zea, erramillera ori, bedeinkau, de geo, barzuek, ganau geiko eotezanin eta zeazorren, gorde eittezan sorta ori, erzan botatzen, ganharan co gordetzezan, ba, arekin ure irekiten ipini te ganauei ur aure eman da sendatzeko ta crailtzen zittuena, baña nik ori ez nuen etxin sekule ori usatzen o ez nun ezautu.”

(Azkoitia).

Azkoitiko Elosu auzoan berriz, San Juan egunaren ingutuan honako sinismenak eta usadioak zituzten:

■ “San Juan goizeko intza bedeinkatua izate zan.”¹³⁹

Elosu (Bergara)

■ “Gure amak San Juan goizian zelaira bidaltzen giñuzen ankutsik intza artzera, bedeinkatua zeola ta ona zala osasunerako ta.”¹⁴⁰

Elosu (Bergara)

■ “San Juan goizian intzeten ibiltzen zien ankaursik.”¹⁴¹

Elosu (Bergara)

■ “San Juan goizin, intxaur ostrue bildu eitten giñuan, ta geo, urtian ziar bierra izitezanin, aure egosi ta artu.”

Elosu (Azkoitia)

■ Bestalde, esaten denez, Azpeitian bazen beste ohitura bat. Hau da, San Juan egunean, erramu pusketa bat sutara botatzen zuten “Kyrie Eleison” crrezatzen duten bitartean¹⁴².

(Azpeitia)

Azpeitian, baina Marximenta auzoan, San Juan goizean eguzkia dantzan ateratzen delako sinestea dago.Honela adierazten du bertan jasotako esaera honek: “San Juan goizian, eguzkiya dantzan”.

Matximentan ere, Elosun eta beste hainbat auzotan halartsu, San Juan goizean, intza hartzeko hankantsik ateratzea ona zela uste zen, goiz horretako intza ona baitzen erreumaren kontrarako. Egun berean, baserrietako ateetan lizar-adarrak jartzen dira (euskal mitologiko zuhaitz magikoa), lizzarrak, etxea tximistetatik babesten duela uste baita¹⁴³.

ERROBATIBAK

Errobatibak ere, tradizio handiko ohitura izan dira duela utte batzuk arte Euskal-Illerian eta baita Iraurgi bai-laran bertan ere.Bailarako auzoetan oso ezaguna zen, otoitz bidez, une hartran komeni zen eguraldia eskatzearen ohitura hau.Honela azaldu digute auzo ezberdinak berriemaileek errobatiben kontu hau:

Azkoitiko Martite auzoan honela izaten ziren errobatibak:

■ “Errobatibak eitte giñuzen San Markos eunien, oti, beintizinko de abril, ori seuru zeaittezan, urtero urtero ezautu gendun, eta gero izitezan, pazko, len esan det pazku audiyeik maiatzeko pazko de pentekostes esate zaben oyen aurretiken Asentziyo cune, Asentzion del Señor, amar eun leno iyo zala zerure, Espiritu

¹³⁹ Guti, Miriam, *Elosu-Bergarako Etnografía*

¹⁴⁰ Guti, Miriam, *Elosu-Bergarako Etnografía*

¹⁴¹ Guti, Miriam, *Elosu-Bergarako Etnografía*

¹⁴² Aguin, Antxax, *Supersticiones Populares Vascas*, 37.vii.

¹⁴³ Pello Sartago, *Los Pueblos, Leyendas y Tradiciones nobávaras del País Vasco Donostiarra*, 1086, 110, 111.

PAZKOKUE

Pazkokue ohitura hau horrela izaten zela azaldu digu berriemaile batek:

■ “Pazkokue, urtin beñ etorri te jaunartu in ber, arbi loatan o, maiatz alde ortan iziteie arbi loak, eta atzea urrungo urtin alde ortako iñ inber.”

(Azpeitia)

BATAIOA, ELIZAN SARTZEA ETA MARTOPILLAK

Egun, haur bat jaiotzean, ospakizunen bat edo beste egiten den arren, garai batean, egun askotako ospakizunak izaten ziren, lehenik, bataioa, gero, elizan sartzea, eta azkenik, Martopillak. Honela, eizkizun eta ospakizun hauek noiz eta nola egiten ziren kontatu digute Azkoitiko hainbat auzotako berriemaileek.

Berriemaile batek, Urrategi auzoan ospakizun hauek nola izaten ziren azaltzean, honela dio:

■ “Bataiau ittezan ordun seittuen, jaixo ta urruno egunin o urrunokun o olaxe, eta geo elizen sartzi izitzan, elizen sartzezan ama sendatzezanien. Esate zeben, elizen sartu arte andrik etzula kanpoa erthenber, bestela burun telli ibilli bertzala, lengo esaeraq esaera, ala esate zeben. Ordun jitezan ume txikixekin elizen sartza ta bedeinkazixo bat eitezeben apaizek eta elizea sartzezan, bedeinkazixuek eta. Bataiau lenuo, jaixo ta seittuen, geo ama sendatze zanien elizea sartze ori, izitezan. Atte, ta attepunteko ta amapunteko ta ordun, oñ baño zeao izitezan ordun e, ordun attepuntekuk eta amapuntekuk besotan da ibiltze zeben, oñ eztebe ekitzen umi ola e? ordun bai, attepuntekuk eta amapuntekuk eta besotan euki itezeben elizan. Bazkaixe ittezan bañe gutxik, jasotze zebenak eta atrebitxi ta amabitxi ta gutxi.

Geo izitezan martoeixe, umi jaixotzezalako, oti ederra!. Auzokuek eta parentiek eta danak oñ bodan artzei-en bezelaxe, ordun martocixe, umi jaixotzezanien. Eta zeoze orrealu ematezeben zeoze, zeamat ta bazkaixe eman da. Geruo, umie pixket saneatze zanien, elizen sartu ta gero itezan martocixe ta ni akordatze naiz, nik azkena izinunien, auzoko andra batek:

- Ene!. Ekarri neska berrize!. Au bazkaixe!. Bizkotzo ta danakin!.

Ordun dotori zan aure, e?. Bizkotxuk era, orduntxe asi gifien gañea ola. Etxik, gurasuek ipiñitakue aure dana, hainbeste, pillue, ze, otamar berroei bat lagun izitezzen bixitie zauen da auzokuek, eta geo iziko-izobak eta zeaitte giñuzen, oxek gonbidatzte giñuzen eta otamar berroei lagun inguru izitezin, izitezinez, etzan bromi iziten aure, e?.”

(Azkoitia)

Beste berriemaile batek berriz, Martiten nola egiten ziren azaldu digu:

■ “Bataiuk eta bertan eittezin, oyek, bataiuk eta bertan cittezin, ba bai, umi jaio ta seittun, altzan azkarrena, ori gaña aintzezen ordun eliziek, dotriña ori izitegenun, aldan azkarrena eaman ber genun umi bataiatzea, gaña gaurko aldin iltzeko artixku zea zeon, orduen etzan, etxin izitezien, ifnoa eamareko zeaiak ez, eta batte partun bertan ilde. Etzeucin medizinaik eta umik ill itezin. Orreatik zan zea, azkar bataiatze ori, orreatik. Eta zan partun bertan, umiek iye illin, iltzen iguel eta orduen ba, gizasemen batek, gizonezko batek eo emakumezko batek, bataiatzen bazekiaren bataia zeiken; “nik bataiatze zaitut, aitaren, semearen eta espíritu santuaren izanean, amen.” Ya bataiauta gelditzetan. Da diskuirun eztezu ondo bataiaua ta ilko zan bildurrez, eta geo bataiatzea emate zeben eta esate zen ba, kondiziyue apaiz orrek; “baten batek bataiatu o bataiau gabe baldin bazaude, nik bataiatze zaitut”.

Ama, azkat sendatze zanien, orduen, ba ori genealien, seun, izitezan ba, zortzi amar eun, o hamabost eo, ba, bai, zea amak ta umik biyek gaixo bat arrapaure makiñe bat tokiten. Ori zala ta, azkar erthen nai izeten arrazoiak emakumiek ba, goor eo azkar eon balitz bezela, jendin aurriñ azaldu nai izitezien amak, ta bestaldetik lanare bai, pamili aundiye o seniralde aundiye eukitze zeen, umetalde aundiye, eta su-inguruko bea-

tra, ta ortako azkar zeaitte nai, ta seun ze aldi tokatze baldin bazan, amak debil debillek eoteie genealien orduen, da gaur bezelako zeaik erzeuen, orduen familiye izitezanien, olluei lepu moztu, umi sartze zanin, nik ori ikusi nun.

Amaponteko ta atteponteko, eta genealin co jayo zan etxin bertan edo bestela tabernan, Urrateine rabernan eingozan, amene ala askotan in oi zan, apaize, sakristane ta atteponteko o ama eo, zapzi zortzi laun zenbat juntatzezin.

Ori esatezen, ori esatezen, amene etzan ertetzen. Bai, ori ez nun ikusi bañe esan ola eittezen, bai, bai, oitture ori zan, esan ola eittezen. Erten ber bazan telli burun artute, ori esan oi zen.

Hamabost bat eunea genealien, esan dizuet, martopillek esan oi zitzekon, leku batzuten, ernen guk martopillek beti entzun izingendun. amabst bat eunea gitxiorabera ola, zea eittezen, bere tartekuk eta abixau te, bazkaye, meindire bai tte, geo zaar batzuk jute baldin bazizun, gizonezkuk bazin, berriz afayere iguel.

Kastu eitte zeben de, leen allau ezin ibiltzezien, zea, baatzuisaldie jatekore oliyu naiku etzeuen de gatzare igul ez, da desastre aure etxin. Ballaan baldakizu zenek kendu zuen?. Ballaa ontan zenek kendu zun?. Neuk kendu nun, oitture ori. Bai!, alaxe kendu nun ba!. Batzuk ez ementzien gustoa bañe, kitro!. Nik kendu nun de akabo!. Eta aure aitgearren gañea, martoei oyek eta atzea eitrearren, jute zan askotan, len esan dizut, ola, ama ver baño leeno elizen sartzea, giro txarrakin , eualdi txarrakin, iuel elurre izendare bai, e?. Eta bai, ortako nai izitezan elizen sartute ya zeainde, jendin zorionak eta. Bai, bai!. Geruo bazkai ori izitezan. Aure izen da andik gutxiorabera hamabos bat eunea ola izitezan, beti ezta jaye tokatzen aurre izitie, hamabost eunea juxtu juxtu ori inberra izitie, igul amar eun, hamabost, hamazazpi eun igul, eztakit zenbat, gutxiorabera olako tarte batekin izitezan. Emakumik orduen astuk bezelaxe iye ibiltzezin, umetalde gaanta, eta geo gauza oyek, eliza sartzie ta.

Ofi, ofi zea eittende, eun batin bakarrik danak, urte guztikue, Kandelayo eunien kalin, Kandelayo eun ori izitea dos de febrero, bisitacion de la Santísima Birjen eo, nola da?. Amaberriñen azpitik pasatzeko oitturie dao emen Axkoitin, ofi. Aurten batayau dinak, urrungo urteko feberun elizan zea, amaberriñen azpitik pasatzeko otturi dao. Ori Axkoitin bakarrik eitea, auzuetan ez. Geo Axkoitin, gaztik bizi dinak ba, juteie, ume danak artu te, sei ottura bat!.”

(Azkoitia).

Elosuko auzoan, bataio, elizan sartze eta martoei kontuak direla eta, honela diote:

■ “Gure garaixan Azkoittira eruaten gifñuzen umiak bataiatzera; jaixo taurrego eunian atsaldian. Elosun Azkoitti partin dao Aitzerra. Bataiora jute zien aittapuntakua, amapuntakua, umia bulardunak eruaten zeban ta beste norbaitt; altra beñez.

Bataio ondoren meindia izate zan Azkoitiko taberna baten. Aitta-amapuntakua ta umia eruaten zeban andria izate zien bertan.

Elizan sartu aurretik ezin zan etxetik etara ta umia jaixo ta hamabost eun barru etxian bazkaixa eitten zan, martoixa. Etxekuak ta senitartekuak etortzen zien. Bazkarixa: sopia, garbantzua, azia ta arrozkoletxia. Ardua, kafia, kopa ta purua¹⁴⁴.”

Elosu (Azkoitia).

■ “Gure umiak bataiau Azkoittin, jaio ta bi eun barru.

Aitrapunteko ta amapunrekok konbidatzen zituztenak izate zien bataiuau. Guria etxetik elizara koñatak eruan zun.

Etxetik kristalezko pitxarra ta toalla eruaten zian elizara.

Lenengo umian, oitturia zan, gizonan aitta aittapunteko ta andrian ama amapunteko izatia; bigarrenian aldreibes, ta ondoren koñatu-koñatak. Elizan amapuntakuak eukitzen zuan umia besotan, ta aitrapuntakuak erropatik eldu eitten zion.

Bataiorako barrutik berdin jazten zan umia; ta felpazko gonan gañetik faldoi txuriya, pikezkua jartzen

zitzaion. Txaketa, txanua ta botatxuak txuriyak. Mantoia be lanazko txuriya.

Bataio ondoren Azkoitiko tabernan bazkari majua eitten zeben. Aitta-amapuntekuak konbidautakuak parte artze zeben.

Senidiak eta auzokuak etortzen zien etxera umia euki ondoren erregaluakin; *bixitia* esaten zakon. Erregaluak pijama, kolonia, jertsetxua, izate zien.

Umia euki ta amar eun barru "eliz-sartzia" eiñ nuan amak lagunduta; umia besuan eraman nuen ta kandilia. Abadia estolatik eldura elizan sartzen zan, belauniko jarri altara aurrian, kandelia piztu ta abadiak leturak ette zittuan. Akabau ondoren abade-etxera meriendatzera juten gifien; txokolatia bolauekin. Aurretik abadiai otarkadia eruaten zitzakon. Eliz-sartzea eiñ aurretik ezin zan etxetik atea, mezatara be ez.

Ama sendotzen zanian *martyiek* izate zian etxian; artzen zien andrian aldekuak, gizonan aldekuak, etxeconekuak ta auzokuak. Eun ortako *bixitia* jatekua izate zan, botellan bat, melokotoia, txokolatia. Bazkaitako: jeneralian bi sopa, bat lijerua ta bestia paella, arkumia ta gatzatua garaixa ba-zan, bestela aragixa ta tartak, ardua, kafia, kopia ta purua¹⁴⁵.

Elosu (Azkoitia)

Elosuko beste berriemaile batek, aurreko berriemaile hauek esaniko guztia ere aipatzen du. Ordea, horrez gainera, honako beste zehaztapen hauek ere ematen ditu:

■ "Umia goizian jaixotzen ba-zan atsaldian bautizatu eitten zan. Norbait umia bautizau ondoren ikusteara etortze zanian " Jainkuak bedeinkatu daixela" esaten jakon. Bautizora aitrapuntakua, amapuntakua ta bi testigo juten zien. Testiguak norberan tartekuak eo etxekonekuak izaten zien. Testiguak firmau eiñbihar zeben. Amapuntakuak umia lepuan eruaten zeban etxetik elizara.

Attapuntako ta amapuntako, baten eo besten anai-arrebak izate zien. Umia jaixo aurretik esate jakon ama eo aittapuntako izan bihar zebala. Umia besotan euki amapuntakuak, ta aittapuntakuak umiai erropatik eltzen zotsan.

Izena aukeratzia, ba neska ba-zan amapuntakuana ipintzen jakon, ta mutilla ba-zan aittapuntakuana. Eun señalat bat ba-zan, Ama Birjiñana eo, ba, uraxe.

Baurizo ondoren merienda sakristauan etxian izate zan. Amapuntakuak cruaten zeban jatekua, ta aitrapuntakuak eratekua; sakristauan andriak preparatzen zeban merienda ta au izate zan: ordiajazpikua tomatiakin, gañian gaztaia eo intxaurrak, kafia, aguardientia ta purua. Meriendan eoten zien aitta-amapuntakuak ta bi testiguak.

Baurizo-bazkaixa etxian eitten zan cunian, eun ortan ekartzen zien erregaluak; senide gerruak izan ezkeo ollua, txokolatia, bolauak, jerez-botilla bat, ta ostianguak berriz dirua, iru eo lau peseta. Erregaluei *bixitia* deitzen jakon.

Umia jaixo ta hamabost bat eun barru eitten zan etxian bazkaixa: *martoixa* deitzen jakon eo *martopilla* be bai. *Martoixa* euneko bazkaixa izate zan: ollua, okelia ta txorixua garbantzuakin egosi, salda ona citteko. Lenengo salda Pintola-sopakin, garbantzuak txorixuakin, aza mortzillakin, ollua patata erriakin, postrian gatzatua, bere garaixa izan ezkeo, ta bestela arrokoletxia. Ardua, kafia, kopia ta purua¹⁴⁶.

Elosu (Bergara)

BEATZIURRENA

Azkoitiko Martite auzoan ha omen zen ohitura bat gainontzeko auzoetan ez zena eta honela kontatu digu berriemaile batek :

■ " Beste oitura bat, gañontzeko barrioytane iñune aitze eznuna, abenduen ba, izeten da mes de rosario, etrosayuen ille otubrie izitea, errosayo eune otubrien zazpi izitea, otubrin zazpiyen zelebratze zan. Ba base triyen garai artan lan asko eotezan, gañuntzeko lanak, da mezeta juti ta oso zalle zan, orduen garu baldin

¹⁴⁵ Gaitz, Almodovar, Elosu-Bergarako Etnografia.

¹⁴⁶ Goñi, Almodovar, Elosu-Bergarako Etnografia.

bazan, gaztañe baldin bazan, artue, babie, arbijorratzie, ta bitu zenbat lan klase eotezan.Oso illi, lan askoku izitezan, eta otubrien, inberrin o eittezan, abendure aldaute zauren len. Abendue deitze zan, asi San Andres, San Andres da izetez nobienbre, azaroa, azaroa azken eune da, eta geo, abendun zortziyen Sortze-Andra Marin eune, azarun azkenengo eunin asi eta Andra Mai o Amaberjifie, zortziz garbiko eunin bukatze zala beatziurrena itezan, nobenaria o nobenak. Ta eun ortan, otamar ortan asi, erosayue, ta ill guztien erosayu ta mezi eotezin. Ori, nik beste iñun attu eztako otture bat da. Eta noiztik zetorrena, otture ori noiz asiko zan iñok arrastolk etzeukan, aspalditik, aspalditik eongozan. Geo, apaize zeaintzanien, apaizek etorri zei-ken arte laaziyon, jende, daneko jendi etortze zan. Oñ ezta eitten.”

(Azkoitia).

KONGREGAZIOA

Kongregazioa zela eta, honela erantzun digute berriemeilek horretaz galdeztean:

■ “Dantza elduan artapatu ezkero zigot au egoten zan, kongregaziotik bialdu egiten zuten. Kongregazioa onela osauta eoten zan; mutillak Luistarrak ziran eta nexkak berriz Mariaren alabak eta illean bein konfesau eta komuniua artzea derrigorrezkoa izaten zan, len esan deun bezela Luistar eo Mariaren alaba ordena ortatik bialtzea zan kongregaziotik botatzea.”

(Azkoitia)

■ “Luistarrak esan oi zitzekon.Bestie zan neskana, Marin alabana, illero illero konfesatzea eman da, garbitasune o gaztetasune, seso kontuik erzan ordun. Kongregaziyo ortatiken ba, batematek lotun de eitte bazun bota eittezitzuen ta gero konfesatzea jun ber. Olakuke attu izin giñuzen. Bañe, gaurre dantza lotu eittieire eskasa irizte zako ta.”

(Azkoitia)

Berriemaile honek esan duenez, jendeak dantza lotuan egin zuela zabalduz gero, kongregaziotik bidalia izaten zela. Horren lekuko batzuk kontatu dizkigute beste berriemaile batzuk:

■ “Da, nik eukitzenun bildurre! Mutillek atten da aman bixten esango ote zeben.ein nule! Kongreazixun de,je,je! Kongreazixotiken fuera izitezan eitte zuna ta, etxin txarro ez kongreazixun baño! Je!”

(Azkoitia).

■ “Ortxe intziyoen zeaite, Donesteakui ta, Errezullen, iru emakumei, iru ernakumek Zelatunen dantza indebe ta, jundie baakizu kongregaziue ta, jundie komuniyu artzea ta, ez eman!.Fueral!, ezta pentsaure! Jun altara aurrea, el!, komuniyu artzea, ta ez eman!.Donesteakui, ta, iruri.”

(Azpeitia).

■ “Urrustillene ezautu nituan nik. Neska eleantik ituan, da eskotie, da zenbat eskora?.Oñ añakuk ez!.Olako eskotie da, da jun dera, Don Tomas zana zan komuniño ematen da, eskote aundiye zaukela ta ez eman!, bi o iru neskai!. Esan nitxoan;

- Kauendio!, akau ingo nika apaiz ori!.

Don Antoniok esantzoan;

- Zertan aiaiz esplikaziyo ori ematen. Laayok ixilliken, ikusikoek, ilbeltzien da otsallin earki itxikotxiye!”

(Azpeitia).

ANJELUSA

Garai batean, anjelusa, kanpai zehatz batzuei deitzen zitzainen eta beren esanahia izaten zuten. Honetaz hitz egitean, honela gogoratzen dute anjelusaren kontua gure betriemaileek:

- “Anjelusek, anjelus orrek zenbat kanpai, beatzi izite altzitun?. Bai, euardiyen, beatzi, amabitakuk bai, beatzi. Geo, illuntzien iziteuan bestie, *amayeku* esate geñon, orrek amaiera esan naiko zian, ordureko danak fueral, ordureko dana bukau izingozan erromeye. Bai, bai, *amayekue* jorze zanien, aide!. Neskek eta asteitan juten da mutillek ayen atzetik.”

(Azpeitia).

Beste berriemaila batzuk berriz, honela azaltzen digute:

- “Amabitak anjeluse gañea. Ori nee attek esateu ori, Berroetako áttitze zanak eite ementzun, aizan lekun, da!. Atxurre bota, Loiola beira jartze ementzan, txapela kendu ta aizan lekun, erreza. Orduna ya, bazkaittea seuru!.”

(Azkoitia).

- “Gu eta geienak garai arran erriz erri ibiltzen giñan erromerietan. Bostak alde ortan aste ziran, garaiz asi eta garaiz bukatu. Ala ere gogoan daukat,urrean bein izaten ziran Elusuko Otabak eta orduan ere amabitakoa jorzeako etxeak egon bear eta korrika Elusutik eta askotan bidean jotzen zigun eta bildurrez:

- Etxea jun eta sermoia izango diagul, esanez alkatri.

Gero beste lekuta ateratzen asi giñan eta orduan etzegon ez ordurik ez nun junik eta nun erorrifrik.”

(Azkoitia).

BESTELAKOAK

HILTZEKO 3 GAWZA

- “Gu, itegiñuzen, gure, nere attek iltzoko oso bearrezkuk ementzien, nei attek erakutsite, gure arte oso aurreatue izintzan gixajue, eta oso bearrezkuk zila pues, illen lelengo beatzi ostielak, beatzi ostiel pasau eitie, illen lelengo ostielak, beatzi segidan. Eta oyek ingiñuzen. Zazpi, San Jose zazpi jayek eite giñuzen. Baño, komulga inbertzan zazpi jayek ondo eiteko, komulga inbertzan. Eta leno erzan komulgatzeten on bezela, leno komulgatzeko zan konfesauta.”

(Azpeitia).

7.2. Gaitzak eta sendagai edo sendabideak

DOMINISTIKU¹⁴⁷

- “Goizian iru dominixtiku illaran eitten zianian ona zala esate eben lengo zaarrak.

Dominixtiku eiñ ondoren, San Blas! Esate eben zarrak. San Blas zan katarruan kontrakua. Katarrua daonian dominixtikua eittia ederra izaten da; dominixtikua eiñ ondoren gorputza deskansau eitten da.

Gu gazte giñanian kafe-autsa sartu sudurretik, ta laster ingo ziñutzen bi eo iru dominixtiku.”

Elosu (Bergara).

ASUNA, HAINBAT GAIKOTASUNEN SENDAGAIA

■ "Amen aldameneko gizona, mutil zanian 14 bat urtekin mutil odoltsua zan; amak asunak artu, gerritarrano narru-gorritan ipini ta asunakin bizkarrian jo ta jo; bittartian mutilla kurruxka batian, bizkar data puzulututa geldittu zakon, sudurretik odola botatzen asi arte ta lurrian potzu ederra eiñ arte.

Mutil gazte gogorra zan¹⁴⁸."

Elosu (Azkoitia)

■ Ordea, ondoko bizitzan, itxikonin, Elosun esaten den bezala, asuna beste modu batean erabiltzen zute-la esaten dute. Honela kontatzen digute bertako berriemaileek;

"Buruko miñen gendukenien, asunek ipintze zizkun gure arna zanak ankatan. Ola, ankarak beotu ta buruko miñen juntzera esate zиuen. Bañe, gu lexterka iesi, ama asunekin oera etorrze zitzekunin, oe azpixen eo altzan lekun ixkutatzetxe gиien."

(Azkoitia).

■ "Oñ gripe esaten zako baña leno *odolan pasadia* esaten zakon.

Gure amak odolan pasadia pentzatzen zanian zala, asunakin ankatako bernatan jo ta erre eitten zigun anpollik irten arte; gero anpollik bere kasa juten zien¹⁴⁹."

Elosu (Azkoitia).

■ "Sasoikua nitzenian, 23 urtekin, akorduan daukat, lotuta gelditu nitzen, ta esangotsut ze eiñ neban: eskukada bat asunekin gorputz danielan igurtzi ta ez neban ezta sentidu be eiñ, ez erre ta ez miñ; esa notzan; - Ekarri zan beste sortada bat.

Eta beste pasada bat emon; artian ezoztan ezer eiñ, ekarri eraiotsen beste sortada bat, igurtzi, ta orduantxe erretzen asi jatan ta gorputza granotzen.

Asunak odola txupau eingoa zosten ta granuak kanpora urten arazi, ta ni deskantza geldittu nitzen, ziaro sendauta, ain ondo be, beixak jextera jun nitzela¹⁵⁰."

Elosu (Bergara).

SINISMENAREKIN LOTURIKO SENDABIDEAK

PROMESA K ETA CRONICASALDIAK.

■ "Promesa asko eitten zan leno, gerriko eo besoko miña zeuanian, umiak izketan ikasteko; Urkiolara, Arantzazura, Santu bakoitzak zeukan beria, da promesa eiñ ezkeo derrigor jun bihar zuan bateon bat etxerik.

Irixauengo gizon zarra ernixora jurentzan urtero, ta argizaixa eruaten zeban.

Txorixak irte'ostran lepuan, ta andrian aizpalk esantzin;

- Izu promesa: Bergarako San Prudentzioko Santutxura juntzaiz, litro bat olio xera eruanda.

Alaxe jun nitzen San Prudentziora, ta andik Mondragora perira, ta peritik etxerakuan txirixa lertu ta juntzan.

Gerriko miña euki ezkeo, ordun darmak Azitzgorriko kurutzai promesa eiñ da juten zien, Atantzazura autobusian ta andik Aitzgorrira oñez.

Ni neu Aitzgorrira junda nao, gerriko miñakin oñ dala 40 urte. Lau launek kotxe partikularra artuta jun giñen, kurutzari argizaixa emon ta erretzen jarri, errosaixua erreza, txabolan bazkatixa eiñ ta etxea bueltau giñan¹⁵¹."

Elosu (Azkoitia).

¹⁴⁸ Goñi Alintxu, *Blos-Bergarako Etnografia*.

¹⁴⁹ Goñi Alintxu, *Elosu-Bergarako Etnografia*.

¹⁵⁰ Goñi Alintxu, *Elosu-Bergarako Etnografia*.

¹⁵¹ Goñi Alintxu, *Elosu-Bergarako Etnografia*.

■ “Besuan eo miña euki ezkeo, argizaixakin neurtu besua ta Arantzazuko Santutxu ermitatxora eruan ergizaixa, ta antxe piztuta laga”¹⁵². ”

Elosu (Bergara).

■ “Txakur aundixakin igurtzi garatxuak ta Überako (Bergaran) Santa Engrazi ermitara jun, ta igurtzitako dirua bota, ta akordau eitteke garatxuak jun eitten zien”¹⁵³. ”

Elosu (Azkoitia).

■ “Txakur- aundixakin igurtzi nittuan garatxuak ta etorri zan eskalai emon notzan txakur-aundixa ta enitzetan akordau noiz jun tzien”¹⁵⁴. ”

Elosu (Bergara).

■ “Txakur-aundixakin garatxua ondo igurtzi ta txakur-aundixa pobrial emon:nik 14 bat urtekin eiñ neban, ta garatxua jun eiñ zan”¹⁵⁵. ”

Elosu (Bergara).

■ “Nere anaiak duro batekin igurtzi-igurtzi eiñ garatxuak ta diru Santu bati bota zion; ez genuen jakin nun, bañan garatxuak jun esin zizkon.”¹⁵⁶ ”

Elosu (Bergara).

■ “Nere amonak musuan begi azpian garatxo moduko bat zeukan da diruakin igurtzi ta Arantzazuko Santutxura bota zuan dirua, ta garatxua sendatu zakon.

Neuk, 40 urte dala olaxe Arantzazura jun nintzen ta garatxo eo grano moduko bat neukan beatzin, da peseziakin igurtzi ta ditua Santutxura bota neban; andik pixka batea arantzia etara zan.”¹⁵⁷ ”

Elosu (Bergara).

Gure berriemaile batek ere ohitura hauxe bera baieztago digu:

■ “Otturie zan, txakur aundixekiñ o ola, iurrzi garatxo ori te, geo, Arantzazurako bidin dauen Santutxuko ermitea, ata bota artako txanpona ori.Ala, garatxu jute clementzan beintzet, ala esate zen.” (Azkoitia).

■ “Garatxuak batzutan ebagi itren giñuzen, ta bestetan txakur aundixakin iru eo lau aldiz ondo igurtzi, ta Elosuko Santutxura jun, txakur aundixa bota ta Kredua erreza, ta juten zien “ amen Jesus”¹⁵⁸ . ”

Elosu (Bergara).

■ Seme zaarena gaixo neukan nik, ta Itziarrera jun giñen; gerra onduan zan, Ama Birjiñan azpian pasau umia, limosnia emon, erreza, an bzkaldu ta etxea; umia sendau eiñ zan.”¹⁵⁹ ”

Elosu (Bergara).

■ “Nere seme batei mutilletan kosta eitten jakon ibiltzia ta Arratera Ama Birjiñan azpian buelta bat emotea eruan giñuan, ta pasa eiñ jakon.”¹⁶⁰ ”

Elosu (Bergara).

■ TRAPUAK.

“Gure ama zana ta Artzabalguia Buruko ixipulia kentzeko San Martzial (Bergarako) iturrira jun zien.Etxetik trapu zuri pusketa bana eruan zittuzten, ango itturrikiko urakin trapua busti, ta burua igurtzi, ta trapuak ittu-

152) Goñi, Aliriozta, *Elosu-Bergarako Etnografia*.

153) Goñi, Aliriozta, *Elosu-Bergarako Etnografia*.

154) Goñi, Aliriozta, *Elosu-Bergarako Etnografia*.

155) Goñi, Aliriozta, *Elosu-Bergarako Etnografia*.

156) Goñi, Aliriozta, *Elosu-Bergarako Etnografia*.

157) Goñi, Aliriozta, *Elosu-Bergarako Etnografia*.

158) Goñi, Aliriozta, *Elosu-Bergarako Etnografia*.

159) Goñi, Aliriozta, *Elosu-Bergarako Etnografia*.

160) Goñi, Aliriozta, *Elosu-Bergarako Etnografia*.

rri ondoko larretan exegita laga; trapu asko eote ei zien.Ixipulie sendau jakon, ezrakit uragatik eo bestela jun bihar jakolako.¹⁶¹⁾

Elosu (Bergara).

EZTARRIKO MIÑANTZAKO SENDAGAIAK

■ “Eztule kentzeko, esne beruei rona dezena bota ta artu.

Eztarriko miñan kontrakua; talo-palan brasie ipiñi, olixue bota, manra batekin buru tapau, ta aren lurruna artu.Eundoko aldi eiñ izindit neuri orrek.”

(Azkoitia).

■ “Eztarriko miñandako gatz-urakin gargarak eittia ona da.San Juanetan bedeinkatzen zien erramuan lorak egosi, burutik bera manta batekin estali ta lurruna artu, eztarrixa libratzeko.Paper de estrazan erdi-xan ardi-sebia bero-berua sarru ta petxuan ipiñi, katarrua biguntzeko.¹⁶²⁾

Elosu (Bergara).

■ “Sutako autsa sartañian berotu, sakutxo bat propio eiñ autsa sartzeko, ta lepuan bueltan ipiñi.¹⁶³⁾

Elosu (Bergara).

■ “Kareaitz-arrie goritu, zinkezko barreñuan ipiñi, esne-tantak arrixai bota, burua tapau, ta lurriña artu, eztarriko miñia kentzeko baira be belarriko infeziyuandako.¹⁶⁴⁾”

Elosu (Bergara).

■ “Kukurruku-eztulandako jarabe au oso ona zan.Ardo zuritan karakol mordo bat ipiñi, azukar gorrixa bota, euki egun bat eo bi tapauta, ta eran iru aidiz egunian.Zikiña ikusteko, gozua erateko.¹⁶⁵⁾

Elosu (Bergara).

7.3. Erromeria eta neska laguntzea

ERROMERIA

Iraurgi bailara, erromeri-leku aparta izan zen garai batean, igandero, edonon izaten baitzen festarako eta dantzarako aukera paregabea. Bailara honetan, soinujole bakan batzuk bada ere bazirenez, erraztasun gehiago izaten zuten autoeta-ko lagunek erromeriak antolatzeko eta honela, erromeriak igandero egin ohi ziren batean nahiz bestean.

Bailarako auzo ezberdinetan egin ohi ziren erromeriak eta baserritarra, hamaika ibilera eginak dira erromerietara joateko. Ordea, erromeri-leku bakoitzak izaten omen zuen besteengandik bereizi, bitxikeriaren bat.

Honela, Potzumentan (Potzu-benta), Maariyan (Madariaga), Martitten (Martite), Elusun (Elosu), Aizpuitxon (Aizpurutxo), Loeto gañin (Loreto gaina), Zamalekun, Komuntzon, Irutxabolatan, Oñatzen, Urrustilen (Urrestilla), Zutruntzolan, Benra-berrin, Irurutzetan, etab. izan dira erromeri-lekuetako batzuk eta hauetan, dantzarako aukera izan ezik, jokuetarako ere parada izaten zen, hala nola, bolotan jokarzeko, aizkol-apustuak egiteko etab.

Bailarako berriemaileek eman dizkigute erromeri hauen zehaztasun batzuk eta erromeri-leku bakoitzean, dan-tza eta bestelako kontuak ere nola izaten ziren azaldu digute;

161) Gudi, Alfontso. *Elosu-Bergarako Etnografia*.

162) Gudi, Alfontso. *Elosu-Bergarako Etnografia*.

163) Gudi, Alfontso. *Elosu-Bergarako Etnografia*.

164) Gudi, Alfontso. *Elosu-Bergarako Etnografia*.

165) Gudi, Alfontso. *Elosu-Bergarako Etnografia*.

POTZUMENTA

■ “Potzumenta zean dao, or, Eizmendirako kruzi artzean ortan, da soñujollek arri baten gañin jarritze jotze zeben soñue ta, oindikene Potzumentan antxe dao soñu jotszeko arrkiye. Eundoko erromeye iñoi zan an, da gañea, jateku ta batipat eratekuen paltaike erzan iziten. Esatebenez, zaagi bat ardo ta erate omentzin erromei aldi bakoitzeako.”
 (Azpeitia).

LORETO CAINA

■ “Loeto gañin erromeye itezan, soñujolie jute zan de geo, Atzerrekatik eta, Urrustildike jute zin da, Nuarbetike bai ta, Matximenta aldetik, ordun jende asko bizi uan Matximentan da. Zaragiye, zaragi ardu gastatze uan Loeto gañien boletan inde. An ze eongo uan ba?gaztai ta ogiye, ta ardue, ardu naiku emate ziyea. Loeto gañin jayero eite uan erromeye. Kako jute uan area soñu jorzea. Neska asko juntatze zan ordun, familiyelke aundiiek gañea.

Erromeyek baita eite zien: Korrzutik onutzouen, Oñatzen, Altuneko Saletxin, Potzumentzan, Zurruntzolan eta Bentaberrin, jai baten Zurruntzolan eta bestin Bentaberrin.”

(Azpeitia).

ÖÑATE

■ “Inguruko soñujole ta jende asko inguatze zan Öñatzea. Öñetza fuertena!, bestikin ezta konpaa ziyoik ez!. Lau soñujole jaiero, Larrañaga o bazan, izuarri soñu aundiyeikin jotze zun arek, Axkoitikue, flako flako bar, ure emengotxe soñujoleik onenak, Elgera txikiye bestie. Arek erakutsi ziyoien emen ingurukutakuei soñu jotzen, e?. Elgeta txikiyek. Artixtie, zirokue!. Jate aldea ta, iguel baserriyetan da ta, soñu eakusten, da geo andik ertetze zeben soñujolike, soñu txikiyekin da. Auntxe ta, Mendibilgo Miel da. Bai, Mendibillene denboalie intzian arek.”
 (Azpeitia).

IZTIOKO SALETXE¹⁶⁶

■ “Iztioko saletxe aurrean bazen berdegune bat era han bildu ohi ginen igande arratsaldeetan bolada batean eta eguraldi txarra bazea eta saletxea giltzatuta bazegoen, Iztioko mandiora etortzen ginen. Jaiero samar biltzen ginen, Garizuman izan ezik, eta oraindik ere bizirik dagoen soinujole bat izaten genuen gurekin, Mario izeneko, Madalenako kamineroen etxean bizi zena. Gero Arroara ezkondu zen. Hemengo mutilek elkar hartu eta soinu bat erosí zioten eta erromerian biltzen zenarekin amortizatuko zuten seguruenik soinu hori, ni artean umea bainintzen, 12 edo 13 urte izango nituen, eta ez bainintzen sozio sartu negozio horretan. Mariok Sakabirekin ikasi zituen pieza batzuk jotzen era nahikoa zuen horrekin gure erromeria animatzeko, dozenaren bat lagun biltzen baikinen edo zerbaite gehixeago. Hortxe jarduten genuen zerbaite, librea eta lotuan, nahiz eta erromeria ofizial askotan lotua jotzea debekaturik zuten. Gogoratzan naiz Mariori Palomitas esaten ziotela, “Vuelan, vuelan palomitas” izeneko pieza bat etengabe jotzen zuelako. Handik urte batzuetara soinuari utzi eta Arroako neska batekin ezkondu zen era han bizi da oraindik ere.”

KOSTITA

■ “Erromeria ibiltariak ziren haien Leizea baserrian ere egin zuten beste bolada batean. Ardoa eta pikuak eramatzen omen zituzten bertan jateko. Olaztik gora dagoen Kostitan ere bai hurrengo bolada batean. Ur

putzu baten ondoan dagoen berdingunean.Hara Luziano Xaguak-era eramatene omen zuten ardoa.

Kostitako erromeria horrek kategoria gehiago hartu zuen eta Arbe soinujolea joan ohi zen Leandro panderojolearekin.Eta Madariaga Txikia esaten zioten beste soinujole bat ere bai.Jende gehiago biltzen zelako zuen kategoria hori. Egurtzatik eta Loiola aldetik igotzen ziren, baina halaz ere ez ginen asko izango. Kostitau eguraldi txarra tokatzen zenean, Villa Plata izeneko etxe bat bazegoen beherago eta hara jaisten ginen. Arratsaldean garaiz hasten zen erromeria eta garaiz bukatzen zen, ilunabarrean. Aipatu dudan Villa Plata horretatik egin nuen nire lehen neska-laguntza ere 15 edo 16 urte nituenean".¹⁶⁷

"Geo dao olaxe eskubire, Urreta jeiskeri do, da xaxi, sasibiri oñ esateana, gero ganea birie, ta txaboli dao an, txabolak daure bi, bi zatiture dare.Bat dao, onuzkaldetik daona da gorriyena, da atzetik zeuena zan Patxiñe, Eurtzeko Patxiñeakue.Burtze bi bizitzetan izingo balie bezela, bi bizitzekoa alaxe daure ta txabolake alaxe dauzkebe, terrenueke bai, ta ordun intzeben biyek peante txabolie, biyek peante intzeben txabolie, da eunez, garizumi baldin bazan, eunez, jardute gendun, ba, alde ontatik, osea, alde ontatik*, gorriyen txabolan erromeye eite gendun.

Arri aundi bat dao an, da soñujoli jartze zan an, da soñujolik izitezin gure denboran Gaate, eta baalizu, Gaate pixke pixket gu baño zaartzoue zan pixkat. Eta nai izitezun neskak eta, da guk diruik ez genuen eta an gure kuadrillene diruik etzan. Eta, Gaatek ekartze zixkiun kajakao kokozko galletak. Da joel, geo konpromisu zeukezun!, ja!. Ettxea etortzi baakizu ze izitean, danak kuadrillen antxe, ola etortze zien bañe*, jode!, arekin zeñ etorri!.

Ta geo eitegenun, ori eunez, ja!, eunez, eun motza zan da motza izitezan. Da, itegendun sue iñ, eurre naiku eotezan da, bestaldetik sue iñ, otzare izitezan batzuten garizumen, eta sue itezan da bein arratsaldeko xeirek o, bai, xeirek aldeazkeo or, pasatze giñen illunetan da, pasatze giñen atzaldea, atzea, da, suekin sorgiñek! (barre algarak*). An eitte gendun, dantzau, e? bafie, dantzau e?

Da Laja ba ortxe asi zan e: erromeyen. Akordatzeko naiz nola etorri oí zan, praka motzak, baño oñ bezelako gizona zan Laja, krixtona!. Da, Aranburuko morroiekin eaztutze zan Laja. Eta bildurutu ittezan, e:, muturrekon bat, baakizu, mutikozkor zarrak ta, ordun baakizu ballerik ballerintzako ta zea izitezun da, gure Juane bitxu zan ordun, iztea ba, ona bai baño, joder il!, zea, erten!. Baño ya ordureko bareztute zeon. Eta bueno, andik akordatzeko naiz an paretie, kanpun, kanpun zea, potzu, len leno erromeye eitezan tokiyen, nola jo zuen piezie, ta jo zuen:

"kaxkito, katxkito, katxkito mio"* (abestuz)

Ori jo zuen. Joel.Eta klaro, beaire kuadrillie oso ondo ibiltze xixkon, porke, gu juntatze giñen, gu, emenguek, anai-arreba zarrenak, nire gaxtie, e, ba, amabi urte. Klaro!, baserritik baserrire junda eta gero, Abaitaindik eta Komuntsoik eta Mendibildik eta, bueno, emen balleran danak orrea, an bertatik.

Baño nola jo soñue? .Ordureko haaldakizu ori zertzan gutzako?. Dantzan eite gendun txistue jo ta, da!, dantzau, antxe ibili, dantzau ez genuen iten e baño bai. Ta bestaldea pasatze giñen, agarrauen da, a?. Biyek Azpeitikuk zin baño guri Azpeiti izen o Axkoiti izen bate etzigun importaiken, bakarrik genden da. (barre algarak*).

Eta ba, guk Kostituko erromei ori gure garaikue.Geo, beste batzuk udean, udean festa aundiyeik eta asi zinin da, Laja ya asi zikun ola, urtebeteko o urterterdi ingurure ola ibili giñen da, gero klaro!. Azite ta, beake asko ikixi zun soñu jotzen da, beak, geo beak e: ogibidie, klaro, ortik eta ordun, ordun soñujoleik erzeon, da gazti gutxiyo!, gaztik klaro!, Lajak ertengo zun ola soñujole gaztie, beste gañantzin eskuko bietzetako hainbeste soñujole eongo zan amen inguruen, besteiken etzan eongo. Ta órdun ba, klaro!oin baño gose aundiyo zan soñuna, gosie!. Ez jatekuna, baita soñunare!, gosie!.Gure garayen zan gosie?era ordun ba, ori izitezeben!. Asi zan ba, or, Zarautzaldea ta, Ayaldea ta, Zumarraldea ta, esate ziyoen lekure.Ta geo klaro!. Gure asi giñen pixkat bajatzen da, Komuntson jarri zeben gero erromeilekue."

(Azpeitia).

KONVENTZO

■ "Komuntzo baserrian ere oso erromeria polita egiten omen zen.Sakabik eta Egañazpik jotzen zuten han sarritan eta kantina ere bazegoen."¹⁶⁸

167) Agira, joxean eta Alaiara, Joxean, fax Agirre: Mosketuren Alaiara. (Bilbao eta Berria), 53.orr.

168) Agira, joxean eta Alaiara, Joxean, fax Agirre: Mosketuren Alaiara. (Bilbao eta Berria), 55.orr.

"Komuntson jarri zeben gero etromei tokiye, kantinie ta, bolatokiye ta, Komuntzon. Da geo, gure txiki denborako, ta ya amairu urte inguru aldea o, atea zeben Komuntzo, ta geo Komuntzoa jute giñen." (Azpeitia).

KUKUERRI

■ "Kukuerriñe eite uan errmeye. Or, Martitte aldea irutxabolatan, iru txabola zaurean ta antxe ite uan. Gañea, bere aparteko eunere eiteuan da, maatza emate ziyen jateko, maatz jana eite uan." (Azpeitia).

MARTITE

■ "Ordun jayen bi meza izitezin, ta geo arratsaldin, bezperak esatcyoe ieku batzuten, guk erosay-ue ta geo beatziurrena Santun batena o izitezan da, jende pille jute zan, gazte ta zar, gazti oindik geyo jute zan. Geo, elizeko zea ori zan erosayu errezau, beste nobenario o zea ori ettezan, otoitzeko ette-zien, ta geo batzuk pelocan ta beste batzuk an eotzin beita ondorenien, soñuen da errmeyeen, pix-kat illuntzen asi arte. Askotan apaizek erretze zun da anjeluse errezau te etxea.

Jayero eitte zan emen, Martitten errmeye. Martitrene soñujolik ballarakuk zien, da alde askotako suerti cotezan emen, toki askotan soñujoleik etzeuen iñun. Epelde zaarra oindik bizi da, gutxiyo baño Larrañagan osaba, oin dela gutxi iltzan gañea, ibiltze zan emen geyena. Leku batzutan ba egokitasun ori izitezan. Ona etorri oi zin Azpeitiko Ofizier ballarakuk, andiken, mutil kuadrillie etorri oi zin, amar bat mutill jaiero jaiero. Geo eontzan epoka bat Martitetik Elusura jute zilare bai, beste amar bat laun jute zin, gu baño gaztiouek zinak, oñ eukikoitue ayek iruoerabost-amar urte bitterte orta-ko edadekuk, baita elurre bazane jute zin.

Illuntzien errmeye bukatze zanien da, gazte jendie, ala!, tabernan oso jende gutxi gelditze zien, mutil zarrak jenealien, jokuno jardute zeen. Gu gustoa eote gifien, poz gaantakin urrungo jairakore. Leno, csantepa, tabernan Martittea etorri te, ba, arratsaldien erosayue errezau te antxe eon oi zien, elizetir erten da, emakumik, gizonezkuk taberna jute zin da, ezta pensaure emakumeik taberna juteiken ordun."

(Azkoitia).

URRATECI

■ "Gerra denporta aure eta enel, trixtie! Jaixe etortzezan, illuntzien Urratei genun guik geure erromeilekue, jute giñen beandtu, illuntzea, orduterdi bat eo zea dola ta batemat ildekuere beri izitezan etrixen, gerran ilde-kue, errosoaixon bat errezau, zeoze limosnatxo bat bora amaberjiñei te, sokadantz geo pixkeren jardun ta jitau te etxea. Iñio etzan coren, mutiltzar bat eo bi tabernan, besteik iñun etzeuen mutilllik ordun da, gerra denporan, ementxe, iru urte pasa amentxe juntzizkun!, nee gazte denpori ala izintzan!. Nik hamazazpi urte nittula ertentzun gerrik eta. Geo asi zan erromeixe ta, geo normaldu zan.

Urratein jaiero izitezan erromeixe. Gerra ondun erromei politte iñi oi zan. Asko ez, e? Bañe, bertan, ballera bat o biko jendie ta ola. Bertako mutill barek soñu jotze zun da, ordu terdi eo bi ordu ez e, gure erromei-xek, etzittun eitten. Nik baitte Urrateko baltseun zeare, asierie ezautu man. Ontxere goun dauzket zein neskak asi zeben. Tolereneko Teixa, da eztakir bestik zeintzin, lelengo baltseun eintzebenak. Mutillek ilde daure. Maarixan da eittezan da, Urratein etzan eitten da, eñi ein nai tte, kontuk izitezin an. Martitte azkena asi zan, eitten. Ta nik iru anai zaarroucek, eta zea esate zitzekon, baltseo txikixe o, erdixe lotute ta erdixe eldu-te o, iziteaba?alako zea ta, jenealin aure jotze zun zerin de, alako piezan bat o bi eitten bagiñuzen! Da, nik eukitzenen bildure! Mutillek atten da aman bixten esango ote zeben ein nule! Kongreazixun de, je,je! Kongreazixotiken fuera izitezan eitte zuna ta, etxin txarro ez kongreazixun baño! Je!" (Azkoitia).

IRUKURUTZETA

■ Junto al dolmen de Iruskurutzeta existe una planicie y en ella una pequeña hondonada donde se forma una balsa que conserva agua durante gran parte del año.

En la planicie se celebra una romería, anualmente, el primer domingo de Mayo. Hoy no tiene, que sepamos, carácter religioso esta romería; pero lo tuvo indudablemente en otro tiempo. Cuentan que antiguamente un anciano de Lezarrisoro (caserío de Vergara) subía todos los años, el primer domingo de Mayo, a la cumbre de Iruskurutzeta, llevando una cruz en la cinta de su sombrero de copa. Con él iba mucha gente. Ya no se lleva ninguna cruz; pero la gente moza continua celebrando anualmente la romería que principalmente consiste en bailes y merendonas.¹⁶⁹

Otra versión que hemos recogido sin embargo, así nos indica:

"Según nos contaron, y antes de la guerra civil, el domingo anterior a San Isidro tenía lugar en esa alta campa una importante romería, lugar de cita de los pueblos, barriadas y caseríos, de uno y otro lado de esta montaña."¹⁷⁰

Berriemaile batetik honela adierazten digu:

■ "Irukurutzetako erromeye maiatzien izaten zan eta ortik Osintxu aldea dago Lezarrisoro izeneko baseria eta gure etxién gaiztakeriren bat egiten bazenduem umetan:

- Lesarrisoroa bialduko aut!.

Esaten ziuren eta gu berriz bildurtuta ain urrutti nola zegoen!"

(Azkoitia).

ITURRIOTZA ETA ERNIOKOA

■ "Bai, bai, amendikene ola jute zin. Ni neu enitzen sekule, enitzen jun, enitzen alleau. Ba, esan detan bezela, ba, Erniyokuere oso eun politte zan. Mezeta, xeiretako mezeta jute zan, xeiretako mezeita jun, eta ikeagarrive bañol. Bestik ikuste ziñuzen, autobusek plazar, kioskoñio laundu bestieitai zu erxea, errespeto earrakin!. Ez laatze etzinlako e?, egiye esanda. Etzeuelako juteik. Laatze etzalako etzan. Etzauelako, eta ez genun pretendiure iten benetan."

(Azpeitia).

GARIZUMA

Garai batean, erromeriak garrantzi handia izaten zuen eta Garizuma eta Pazko egunetan debekatua egoten bazen ere, ibilerak ibilera, isilka eta ezkutuan egin ohi zituzten erromeriak. Honela, Garizuma eta Pazko eguneko hainbat pasadizo kontatu dizkigute berriemaile hauek:

■ "Eta geo asi zien Erremu eun baten, eune pixkat illune zeon da, Erramu eune zan da, guk, gure pentsamendu zan, eztarakit ala izingo zan. Baño, Iturbide Miel da Montañakuek aurre aurrin da ta, joi!.

- I, oyek krixton zea ingo ziuek da, ayek krixton zea, ta!.

Ayek etziule ta, denuntziye iguel eingo ziule errijken da, baakiztu, zea ori. Ta baaldakizu noa jun gifiñ? oin dao, Kostite amen da txaboli amen do, ta besti do, Kostiteko burnizko langie or, eztaona jiyotzeik betik gora, mendire, an bukatzea zeana kaleko jenditzat. Andiken olaxe, gora junda, leno, oin dao dana sasiye, bafio leno zeon dana sukalde au bezelaxe, garbi garbiye, da, emengo txaboli dao ba an?. Oindikene tente dao baño askore eztu ver eroitzekore. Lenengo pagu zan eta eotezan garbi garbi dana, perretxikuekinde dana beteta. Eotezan aure, ekarri eziñ etxea orbela ta, txabola aure orbelakin beteta eotezan da, olakotxe puxkera txiki bet zeon betebe. Jun area, an nola zeuen jende pasadizo aundiye, ta batetik zan Erremu eune, Erremu eune ordun zan pekatue, bual, mortall. Pekatu zan dantzan eiti!, ezta musikaikel, ezta ezerrel!. Ori eta Pazku eunek era.

¹⁶⁹⁾ Aranzadi. Teléfono de Barandiaran, José Alizardo y Eguren. Enrique de EXPLORACION de diez y seis dolmenes de la sierra de Itzaina-Plorzentzia. San Sebastián. 1922. 11.0m.

¹⁷⁰⁾ Peña Santiago, Luis Pedro. La ruta de los brujos. 10Km.

Erramu eune zan da, jure gea gu area, eta an beintzet erromei paxara bat ein genun.Geo, zapriterdiyek zortzi-retako etxea. Bazkalonduen ertetze giñen, ba laurek o ola, laurek aldin erten da zortziretako etxea.” (Azpeitia).

■ “Nik bizitzan eindetan markaik aundiyyena da, Pazko eun baten, Pazko eun bat.Ta klaro!, lutu beze-la eote zan. Ordureko ya Kostituko erromeye gastaute zeon porke soñujoleik etzeon da bal!, ez giñen juten. Da, radiyu ek eote zin, bai Arrate irratia, eta Seura irratia ta oyek eotezin, Garizume guztien itxel-lita etzin eoten baño etzan soñuik eoten.Eta eote zan soñu gose bat!.Da nik eukiko nitun amalaurte, bai, amalau urte eiteko neoi Pazko eunin.Ta nik eindetan markaik aundiyyena erromeyen ori da. Ba, giñen gu, gu giñen bost neska; Aanakue, ni, Otolakue, Daemengue, ta beste bat uste zala Txurruakakue, bost neska.Jun Komuntzoa, erromeyc zeuela ta, Xakabi jute zan da, jun giñen bostetan, da, jun giñen da, abi-xauzula etzala etorriko. A baj?. Pixketen eon giñen da:

- Ze eingoñeu?.
- Maariya jun beñieu.
- Bale!

Komuntzotik Urreta, Urretatik Goiko Salterre aldin aurra, Urruzola aldin aurra, Maariya.An bi pieza in, da buelta, etxea. Amarretako atzea etxin. Amamak, da, gure etxin dierka jardute zeben.

- Illune zan e?illetargiye zeuela eskerrak!.

Pazko eune izingozan abrille, abrille izingozan ba ordun.Ordun orduik etzan aurreatzen, etzan errelojoik aurreatzen.”

(Azpeitia).

NESKA LAGUNTZEA

Erromeri ondoren, mutilek neskei etxeraino laguntzeko ohitura zegoen duela urte batzuk. Honela, baserri bate-tik bestera, egundoko ibilerak egin ohi zituzten eta hainbat pasadizo ere gertatu ohi ziren. Berriemaileek, hori-etakoa hainbat istorio azaldu dizkigute:

■“Agirrek duen irudipenaren arabera, neska bakoitzeko hitu mutil izaten ziren erromeria horietan.Neskaguntzeko ordua iristen zenean, alde egiten zuen neska bakoitzeko mutil taldea izaten zuen atzetik. Askotan horrokan hasteko zorian jibiltzen omen ziran, nahiz eta aukera beti neskaren esku egon.^[71]”

■ “Da Komuntzoa jute giñenin? pues, neska launtze asunto ori? Je,je!.Ba ola izite zan. Esanda o, esan ezkeo ondo!. Bazien, ezter izendako zeñ baño, gu bañore pixkat zaartxuo, bafio, laarzte zeben jerts o kanti-nan, entenditze al dezu?. Da geo, etxeakun ba, kantina jun bertzeben jerts artzea. Ta, je!.Neskire, je!, sabia!, (barre algaraka*) asko jakin neskire!, klaro!. Eta arek nai izitezun pues, mutillen olatu jutie, geo, entenditze al dezu?.

Nik ati niyon bildurre!. Nik al baldin bazan bi.Bueno, ni!. Ni bakarrik ez nirzen iziten. Gu, amengo ta beste batzuk, igual izingo giñen iru neska o lau neska o?da, ni beintzet oixe prokuratze nitzen. Albaldin bazan, beitu atzea, osea, kantina aldea ta ein beste pixkat, pare bat pieza eo ta, eta zan Kantinatik bera ola-kotxe aldapi zan, Kantinatik bera olaxe bajatze gifien da, zuk baakizu zer dan?. An olako mutil pillie atze-tik olatu bezela?eta bultzeka?. Aizu, jo ta iguell!. Nik kriston bildurre niyon gauze ari. Eta ola izitezan neska launtzi ba, potzu au te, orru batzuek bailastarrak bezelako orruk era!. Da Berastei, emendik klaro!, emendik dana aitze an eindekue, Urretatik gutxiyo baño. Emendik geyo, ta, a!, gure atte ta ama!, a!, amen-go neskak. Lau neska amendik.

- Entera gaitun noiz erten dezuten?”
(Azpcitia).

■ “Ba inde nao ni, gaur makaldure nao baño pixkorra nitzen, ez neuk esatealako bañe, txikiye bañe pixcorra. Karrerie latza jo nun!. Iru neska giñen ordun, etzan kuadrille audi ori, da beste mutil mordoskie. Da, pentsauko gendun zein mutil izingo zin. In jesukriston karrerie!. Da, Komuntzotik Takoloa bueltautekuen, Takoloa bueltautze zanien, an berdin artan jo krixtroko karreri jo ta mutil zarrake atzetik, krixtonak!. Da, jota, saastiye zan, bañe ni, bazekiat nik zein giñen da?. Zeon saarra, dana dana, dana itxite, ta betik gora saarrin jiyo, betik gora!. Baibe, zuk etzeukezun olako karreri mutillekin aurretik iteik?. Da, ba!, klaro!. Ni, eunero antxe pasatze giñen astukin emendik gora ta?. Da, ñío!. Eraña izingo uke, junde, aurrin etorri te, ortxe gora jiyortzie?. I, Antzeta (Arantzeta) aldin gora ler iten, i?. Jun inberda Urretain lexterka artan zeuk nai ezpalit bazendun ayekin jutie?. Eta, jun mutillek eta, mutillek bentrajatzue, pixket arzeo ikusi batin da, bentrajatzue, jiyo saar arbolan gañin gora da, geldi geldik, illune! (barrez*). Ixil ixilik saar arbola gañin. Da, aitze gendun. Gozadik aundiyyena zan, mutil ayek ze esate zituen aitze ori! (barrez*). Ayek ze esate zittuen aitzie!. Ordun bageñekigun nundik jo zeake?. Ene!. Ba, ola!, ola pasa gendun gure gazte denporie, Geo ayek etsitze zebenien, ya Aantzetañ ta gure arrastoik ikusi etzebenin, txakurrepeze-la nola etzeben useitzen, (barrez*) goiti bera ayek. Bueno, ta ayek bera pasatze zinin, jetxi te martxa etxeal. Bal. Ayeke bela aspertze zine?, etzin beayekeoten e?. Ayek jun dituk eta zea ta, bai, neska txarri ori, eta besti ta besti ta, komentayuek aitze giñiuzen da, kasoik ez da aurreal. Eta, ba, ola zan zea, zitaute ta, i jongo al gaitun? Da, i zea ta? O!. Ori dotori da.”

(Azpeitia).

■ “Esan degunez erromeria goiz asi eta illunduta bukatzen zan eta gero neska laguntzera. Andik etorri eta lagunak batzuk egongo ziran afaltzen edo aldrees, zu afaltzen eta lagunak neska laguntzen. Kontua da neska laguntzen izan zanak *txitxin* ardoa pagatu beat izaten zuala. Neskanetan izan era bueltaut etorri eta tabernan sartu orduko esango zizuten:

- I, atazak *txitxin* ardua?.

Gero zuk ere afaldu aiekin batera eta orduan ere beti izaten zan xaxi bertsolariren bat edo zerbait moldatzen zana, eta orduak aurrera olaxe.”

(Azkoitia).

Aurreko berriemaileak esan digun ohitura hau bera Imanol Lazkanok idatzitako liburuan ere jasotzen da:

■ Hara gazte denborako neska laguntzetatik hasi eta noraino heldu naizen! Norbaitek pentsatuko du orduko esperientziak direla hauek. Ez zegok hurcean! Geroko bizitzak erakutsi didan apurra da hau. Garai hartan oso urrutiko intraur ziren horiek guretzat, baina gure sanidadean ilunabar polit eta goxo franko kendu genion geure gazte denborari. Gero, neskaren bati lagundu eta ostatura heltzen giñenenan, Errezial alde horretan behintzat, eta gehienetan han ibili ohi ginenean, bazeen ohitura bat. Ostatuan zeudenek *txikilarroa* eskatuko zizuten. Gizarrea utzi eta neskatarra alde egin zuenak ordaindu beharreko zerga izaten zen *txikilarroa*: botila bat ardo. Hura atera eta ogitarrekoren bat jandakoan, niretzat behintzat beste eginkizun garrantzizko bat izaten zen etxera joaterako, nahiz eta horrek askotan gutasoek eta apaizek jartzen zuten ordutegian arazoak sortu. Norbaitekin bertso saioren bat egitea ezinbesteko eginkizun bezala hartua neukan’.

7.4. Festak eta jokuak

FESTAK

ANDRAMAIXEK

■ “Ta oin bezela andramaixetan da!. Andramaixetan jakingozu gaueko amabixeran kalin iñore etza-

la geatzenordun!. Ta urrungo egune izitezan San Roque egune, urtin zan egunik txarrena gure etxin. Goizeko xeiretan jotze zeben ordun dultzaieruek, buelti itezeben kalin. Aure!. Kalin lo ittegenun izeko baten erxin, aure jotze zebenin jeiki de etxea. Arbi iñin urrungo egunin, eun guztxi soka jar-tzen jardun ber. Urtin izitezan eunik txarrenetako bat.Beti eun artaxe inber izitezan arbaixek eta!, oso zea izitealako, labore ori oso importante izitea, artuk eta gaixek eta eztobetxiz ola denpora jakiniñen, bañe arbixe iztea bi o iru eunen barrun inberreko gauzie, eta beti San Roque eunien.Oso lur zallek zin gañea ta!, aure egune izitezana!, aure egune izitezana!. Geo gari jotziere pare artaxe izi-tezan jenealin.

Beste baten goun dauket, San Roque eune o, irugarrengoz izingo zan, iru etxetako gaixek jo ta, azken-nien, musu garbirziere, ez koartobañoik eta cz ezere ordun, potzun eo altzan mouen zeoze garbiu autse ta zikiñie zeakin, zenbat musuzulorane. Urrengoko egunin dana ausez inda etortzezin. Eta altzan moun izaera zarren batekin irulaubet lagun arekin sikau ala prestu te, illuntzin gure erixue, kalea afal-dure itteke!. Gajo zouek!. Oñ ezten ibiltzen jendi ala!. Gure gaztetako izierie!.”

(Azkoitia).

MARTITXKO FESTAK

■ “Oñ astin bein meza bat eotea, len gañea bi izatezien, da asteguniene ba zea askoran Apostoluen eunetan, gero oyez gañea, domekaz aparte emen bertane izitezin ba beste hamabos bat jai bertan cittezinak. Izatezien, oñ geyenien, jai oyeten geyenetan, San Jun eune kendu zan, San Jun eunere leno jai, domeki bezela izitezan. San Pedro izitezan, ori, zeare bai, Santiago de Onil bai, Santiyo eune-re aurten ustet jai ipiñi zebela, bañe, San Pedro eunine ezta jai, kendure, Euxebiotzeko eunere parro-kiyen eictea, Axkoitiyeni Euxebiok oso deboziyo aundiye du, deboziyo aundiye da Jesusen biorzantzako ta prozesayue ta, illuntzien zea aundiye izirea, ato relijioso o ze esangoizut.”

(Azkoitia).

ARATZ-ERREKAKO FESTAK

■ “Atz errekan San Isidrotan iziteie pestak ta leno, mami jana citte zan. Bitan iguel, sobratze bazan da, manéjaure ustet asko eitte zeela.”

(Azpeitia).

NUARBEKO FESTAK

■ “Onea etortzezin txistulayek eta, etortzezin da, zea eite zeben, bazkalondun eskin pasatze zeen etxez etxe. Ori fescetan, Trinidadetan. Euerdiko, erropi astune iziteyen, da geo bazkaita gurea. Utteri legi uan. Ordureko karga karga inde, ta biarrenin xixta bai, etxin. Gurin jate zeben da, ezen zeaik ez, da guk jaten eman ber!. Guk ahi ingiñuñen ayek, azil. Neuk kulpak orrea etorri nitzelako, besteik eztauke, neuk.”

(Azpeitia).

■ “Bañe ordun eski itezien txistu juez da, berc bete eitezien ordurako. Euerdiyen etxez etxez eite zeben, Trinidad eunien da, limosnie, ean da limosnie, taka!, bora ber, da. Da!, da!, da!.

- Eango zu?.

Ta, bestie ta traue ta traue, kargau azkenien. Goizin jan ez, etzeben jaten da. Geo euerdiyen majo jate zeben.”

(Azpeitia).

■ Eta historian zehar izan dira hainbat pasadizo txistulari era nuarbetaren artean ere. Henola aipatzentz digu Nuarbeko berriemaile batek:

"Jende guztiye aretxen zean, dultzeñero ona, dultzeñeko baliyozen. Jesusen biyotzan eune uan, Astierretam noiz iteie? A bai, Pazkoa biarrenin, ba, bizikletan netxetorrean ni Mandubi, Salbatoretik gora, ta de ttaje e! Joakin ori, ta, ezauture enin in, atte zanak esantzeian:

- Ola ta ola ta, uil.
 - Oixe izingo zan?.
 - Bai,
- Ta, esantzian;
- I baño leno jungs nauk ni?.

Da, ointxeko baten ekarri nian ondoen ondoen ondoen da, ler iñazi nitxoan da, beouan gañea, ta ;

- Allau altzea Joakin?.
- Ezautze al nazu?.
- Bai, ondo asko!

Da, dultzañi jotzea ta, seittuen asi uan Mabdubiyyen dultzañi jotzen.

Geo ari baaldakik ze ingeñon guk Koeanea etorrive? Piteik erzeukela, pitek etxik laa zitrula ta, Errealdeko Dionixio ta erzaiat zein billa giñuzen, diru mordukin. Geau, da ayek ekarri zizkoen da krixtonak iñ de ez joazi!. Ta diru mordu bilduko zin Koreanin e?. Da, ba aldakizu ze eingennion?. Antonioko Joxe zana ta nik artu gendun lezterkan aurrin da, Antzaango Zubiyén, jata, eldu biyok da an buuz bera euki genduan.

- Azkena aukek ontxe!, esan geñon. Azkena aukek txerri orrek!.
- Eta, geo abanta uan bidetxurri da, "ti-tiri-ti-ti-tiri-ti"*(abestuz).
- Mekauen!. Joxei esan nitxoan. Mekauendio!. Arrapau te ebai iguel ingoiau txerri ori!.
- Da laa igual inberko zoau!.

Ta antxe laa giñun. Geo, ollokin, or, Andoañen, Leitzango tunelen batetik eroi ta illementzan." (Azpeitia).

JOKUAK

Festetan, edo jaietan, batzuk erromerian dantzan ari ziren bitartean, beste batzuk hainbat joku eta jolasera aritzen ziren, satri, joku horiek apustu kutsua zutelarik. Ordea, auzu guztietai jendeak ez zuen joku berdinetara jokatzen eta ezta neska eta mutilek ere. Izan ere, neskentzat joku batzuk zeuden eta mutiletzat beste batzuk. Honela kontatu digute Iraurgi bailarako zenbait berriemailek:

ROLA-JOKUA¹⁷²

■ "Elosun aintxiñatik eitren zan boletan; bola-leku asko eon die, txikitatik asi ta, dozena bat, ortik gora ezautu drittut. Oiñ, batea eongo zienak, bost eo sei; famosuena guria, Bentan.

Bentako bola-tokixan etzan amititzen gazteik orduan, erromeixa nola bertan eitten zan... (ingo sala de fiestas bezela); 14 urte arte ibiltzen giñan beste bola-toki txikietap, auzoko bola-lekutan bola txikizakin, batzuk emen ta bestiak an, ta gero zan, alternatiba bezela; Bentakua".

"Auzoko bola-leku ezautu drittugunak: Korta, Artzabal (Agirrezabal), Narbaiza, azpikoa, Litzurdio, Benta-oste, Labiaga, Ellior (Igileor), Agetre, Amentzela (Amentzelaga), Aitzarra (Aritzederraga), Elizonduan, sasoi baten famartua (60 bat urte), gerra arte dozenerdi bat eongo zien.

Eskola zeuen tokixan Soziedadia eiñ zan, Sociedad Elotmendi ta bola-lekua be eiñ zeben, etxe kontran, oiñ lau bat urte."

"Bola-tokixak 15-16 metro zeukan luzian, ta lurrian metro t'erdiko ola sartuta, azkenian iru txerla illaran. Txerlia bezelako egur bat sartzen zan rasian lurrian, ta aren gañian kolokatzen zien txerlak. Emen txerlak erzeukan izenik; ori beatzi dienien.

Bolia, egurrezko borobilla zan, esku-zuluakin, lizarrezkua onena. Bolak aundixak ta txikixak zien, aundi-xa kilo t'erdi ingurukua; enjeneral au ibiltzen zan; desafixoko jokua eitten ba-zan, or bola txikixa izaten zan.

Esku-zulua, (boliak) gurpilla eruateko da. Zulo aura euki ezian, ezin zeikien bolaik jun; aintxe zaindu bear ziñuan. Esku-zulotik elduta ifiope etzeban botatzen; oin be ez, ori bee aldeko ipuña da. Amen esku zabalian artuta botatzen da bolia; iñioiz lurra bustixa baldin bazeuan, bolia zerrautsakin igurtzi.

Boliak ola jo ta zuzen jun bihar datx txerlak jotzera.

Boliak ola ezpadau jotzen *olutsa* deitzen jako.

Boliak txerlak ezpaditu jotzen *kale* da.

Gerraostian jokatzen zan asko, geuk 19-20 utte geunkazela; kantidadia dirua; inguruko jendia ikustera etor-zen zan.

Joku bat zan *trabesa*: joku bakoitzián bi bola, bixin pare baietz bittan, bi jota parra zan, iru jota irabazi eo bestela iru baietz, ortxen jokatzen zan diru asko.

Beste joku bat zan *kontratrabesa* esaten dana, bik alkarrekin zeñiek geixau jo.

Amen dirua plasta-plasta ibilli zan, gerra ondoren, ta durua asko zan. Au ta ni izango giñan gutxién giñuanak; euki ez, da atrebidu ez!. Jaixan bakarrik, jai atsaldetan, goizetik ze o ze ta giro ona zanian jokatzen giñuan.

Bentako bola-lekua etxe aurrian nola zan, udaran bakarrik jokatzen giñuan, asi otubrian ta abrillerarte. Neguan fuera; neguan oso gaitza zan, ura formatze zan da.

Emakumiak etzeben bolatan'eitten."

Elosu (Bergara).

PELOTA¹⁷³

■ "Frontoirik etzeuan da elizpian itten giñuan pelotan; orduan narruzko pelota gurxi ibiltzen zan, da lanazko peloriakin da altzan moduan jokatzen giñuan."

Elosu (Bergara).

APUSTUAK

■ Apustuetan berriz, mota guztietako apustuak egiten omen ziren garai hartan; giza-proba, idi-probak, harrijasotzaileen apustuak, asto-probak, aizkora-apustuak etab.

NESKENTZAKO JOLAS BEREZIAK¹⁷⁴

■ "Garizuman Santutxu onduan ibiltzen gifien *galderonka*. Orduan erzan izaten garizuman neska-mutillak alkarrekin ibiltzeik da neskak galderonka eitten giñuan, da mutillak boletan."

Elosu (Bergara).

■ "Garizumako jai daneran etzan erromeixarik eoten da neskak *galderonka* jolas eitten zeben, da txoko-latia jokatzen zeben.

Galderonka ta *txikilloia* esaten jakona bi egur die, bat aundi-xa, *Galderonka*, metro erdikua, ta bestia txikixa, *txikilloia*, ogei bat zentimetrokua, ta onek punra bixak zorroztura eukitzten zittuan, gero saka eiñ zeixen.

¹⁷³⁾ Goñi, Alredoz, *Elosu-Bergarako Etnografia*.

¹⁷⁴⁾ Goñi, Alredoz, *Elosu-Bergarako Etnografia*.

Lau eo bost laguneko bi kuadrilla izaten zien; lenengo aseeran *txikilloia* eskuan artu ta *galderoiakin* jo ta al dan urriñen bialdura citten zan; beste kuadrillakuak aidian artzen ba-zeben bota zebanak etsi eifi bear zeban; neskak amantalakin artzen zeben, batzuk ortan oso onak izaten zien; izan danik onena onen koñatia Amentzelagako Isidra, Martíñien alarguna.

Batzuk oso artistak izaten zien; igual beste kuadrillako bostak botatakuak aidian artu ta atzera botako zitruen. *Txikilloia* aidian artzen ez pazeben, jaurti ta Yrixauengo atia jo bihar zeben; *txikilloia* zenbat eta urriñau bota, jakinña, atia jotia nekezaua.

Joten ez pazeben, lenguak segitzen zeban jokuan. Orduan, *txikilloia* lurrian ipiñi, puntzan iota sakia erain, da *galderoiakin* iota alik ta urriñen botatzen zan. Orduan puntuak kontatzen zien: onaño bost puntu izango zien, orraño amar, ta ala; puntu geixen etaratzten zeban kuadfilliak irabazten zeban."

Elosu (Bergara).

7.5. Bestelako ohiturak

ESKOOLA

URRATEGI

■ "Lelengo ibili gifien torrien, neskazar batekin ta Urrateikue geruo ipiñi zeben. Eta gu ez gifien Urratein ibili, torrien, torre beekun, neskazar bat, zaar zar zarra, kordoe andi batzuk ibiltzezin leno, Karmengo Kofradikuk o czrakir nik ze, frailik ibiltze zittun bezelaxe, ibiltze zittun, Karmelita Kofradiko señaletzat. Ta eskolatik geldiu ver gendunien, anaxe ta bixok geldiuber genula ta, Jesusekue ta La buena Juanita ori neuzken nik liburuk, arek etzittun askozegeixo eukiko, zarroue zan zeoze bañe. Ta axek eskau geñizkon emateko ta ezetz, etzikzuka emango, etzikzuka emango, ta baietz ta ezetz ta, azkenin burukie intzun gure anaxek ta kordoiek eta danak etenzizkon, pentsaun ze!. Ba, eskolalan danan ondoren liburu oxek kentzeko. Len bapuk etzixkonan da, kitto!. Bakoitzeak bana bañe ez nai gelditzeiken, ez nai gelditzeiken. Ta jutezan illan lenengo ostieletan Don Domingo esateixoen abare txiki bat bazan emen, xarra zan bañe bet konpitte partitzeten danai, umiei ta ibiltzezan. Illen lenengo ostireletan jutezan aure, ta aure etortzezaneako kantau inber ba, emen da!, emen da!, emen da!. Ta intxerri bet bazun ola mai geñin da, ban, ban ,ban! jotzezun neskazar orrek intxerri oi tra emen da Don Domingo!. Ta aure jo ta danak ari kantau ta dotriñen esplikau gero ta aure izitezan gure festie.

Amar urte ingiñuzuen komuniko aundixe in da aizu!, laneal! Etxin baserrixen da akabo!. Gure eskolire aure izintzan da arrezkeo lan da lan."

(Azkoitia).

ARATZ-ERREKA

■ "Eskola oneatxe, Atzerreka jute gifien. Frontoia ta elizi ta daon ortan daon etxe ori zan eskolie. Xei zazpi uttekien asu gifien, ortxe, geo eztakitt noiz arte, erditen junbe ta. Goizetik izitezan eskolie normalin bañe astearretan atsaldez, ordubitzen o eztakit ze sartze gifien. Goizin eirtezun Pelisak, arek eittezun, emakume bakarra ba urere ta, azoka o zea jute zan. Bea jute zan oñez Altsasutik, Urrustildik bañe goratik, onea gatozela. Orire izitez, Komuntsoarrak o badie ba, oyen lengosue o zeoze, ta oyek muti koxkorra o mutil gaztie ekarri izingo zeen da, ortxe geau ta, geo Pelixa orrek, langilli ta zea izen da, beri bezela o, solteri zan Pelixa ri ta, alaxe."

(Azpeitia).

IZARRAITZ

!! “Bederatzi urterik 11ra bitartean , komunio handia egin bitartean, ibili zen eskolan eta urte horietan ere arratsaldez bakarrik.<<Maisua Don Justo genuen, Lasaoko apaiza eta ondo-ondo doctrina eta ‘Cara al sol’ bakantrik ikasi genituen.Bestek goiz eta arratsaldez ibiltzen ziren baina gu arratsaldez bakarrik joaten ginen eta erditan huts eginez gainera, etxearen lana izaten baitzen, itulan edo ardiak zaintzen>>, kontatzen du.

Egunero-egunero dottinako lezioa markaruta bidaltzen omen zien Don Justo horrek etxera eta hala Joxek buruz ikasi zuen doctrina osoa.<<Atzekoz aurrera ere esaten nuen doctrina otduan nik>>, dio.⁷³⁾

“Lelengo eskoli izentzan Bildotsolan, de geo Komuntson.De geo, Komuntson maixu iltzikun da adios, gute eskolie!. Etorri zan, Bildotsolatarrak ortan oso zea zien da, erotri zan maixu bat ta oso ona zan, e?, oso maixu ona zan, baño ola anbulante zaunen bat, etzuen gaur bezelako karreraik eukiko baño guri oso ondo erakutsi ziun. Bañe umetan ibili gifi en arekin, lelengo letrak ikixi gifiuzen, sumarre bai, akordatze naiz nola ikixi nun beakin, sumar.Geo pasa zan, Komuntson erre intzan, baño Komuntsokuk da Bildotxola baserri ziñin da, Komuntsokuk kendu in nai zun Bildotxolatik, eta erretea zeukela, Komuntson ipini gendun eskolie, ballerako eskolie, Komuntson.Geo, erretea ta jo zumin erauntsi batek, Komuntson, bi laun iltzin, arriyek zeainde, bat maixu bat, maixu ori ta geo bestie Joxe.Bi iltzin.Ta geo gerau gifi eskolaik gabe. Ori gertau zan nik zazpi zortzi urte bitartin nitula.Ta se fini! .Geo etxin dotriñie, ori bail!”

(Azpeitia).

JANTZIAK

LANGGUNA ETA IGANDETARAKO JANTZIAK

!!“Jaztekko berriz telaik etzenduken nai bezelakoik, alde eskasa zeuen telie, ta gutxi geñea, ba, zakuekin eindeko, gonak, zakukin eindeko gonak izitezin. Garko zakuk ayen aldin zaku earrak die, ayek latzak izitezin.Leno jantziyek bai differentiek. Gaur kamisi esatezakonik eztao, bañe orduen, tela zea bat, ze esangoizupe, oetan da izerak eta iziteie, sabanas, bai, sabanas, ortakotxe zeakin, oso osokue goiti bera sartzezala, kamisi emakumiek, geo oin dela, ori gastau zan oin dela otamar otamabos bat urte laa ziyon emakumik oyek jaztiei.Bañe kamisi jakinéku, gorin lutzeroku gañea. Jendi eotezan gonin lutzerue korputz guztien ibiltze zen, praka motxakin de emakumik eta, buenooo!, sartuko zittuen kartzela seittuen!.

Elizeare junber izitezan mantaliñia, mantamilda esate zitzekon zea bat, sardi zea bat zan, tule o nik ezta kit, ez, tule ezta ori, mantilla, mantilla!. Mantilla esango zitzekon, aure jantzia elizea sartze zan, ezta ametiure bestela. Besuk eta gorrik era, emakumik!, jesus!, ezta.pentsaute!. Tirantikin de, ezta pentsaure!. Ta negun de ebaltze zin barru-elastikuek etare, besun itxiyek danak.”

“Erropak eiteko mateielare lenó lientzo esate zitzekon da ori baserritan eittezan leno, nik eznun ezautu bañe. Telie, belar ba,t, lientzo, eune, eune esate zitzekon, liñue bai, ori. Bertan eittezan da, izerak eta prakak era neuke banituen da alkondayere bai banituen eunezko zeakin lientzo, alkondayere. Oñi bazan, ni gazte nitzenien. Estu samarra zan bañe ebaltze genun saarra biltzen da, ori jantzi eta goyen soka batekin lotu te saarrez beteta. Saarrondueten, arbola punterik eta ba, bera botatziek ez ta, gaur bezelako sesta o saski ortako zealike aukeraikie etzauen orduen, saarrez berc bere ein, jatxi bera, berrize exkilatik jyo, bete saarrez ta.Bañe zea zan aure latza zan e?. Tela aure, buf!. Ola, alkondaye ta tente eoteko mouko zea zin ayek, tela gorak, ta galtzak etare bai, galtzake.

Erropire gutxi eitezan, Jesus!.Ezkontzeko trahi in de bizi guztireko.”
(Azkoitia).

!! “Leno gerriku izitezan, gerrikue, jaixen pixkat piñoue. Attitte zana, atte zanak baita. Iñioiz sentiu det nik gerriko miñe ta lotute ta, jode!. Bai, beltz ori.Bañe emen ziero meie*, e?. Piñe izitezan aure.

⁷³⁾ Agirre, Joxean eta Almar, Jesus, Jose Agirre. *Marketenean Mairuna (Biziñaz eta Bertsonik)*. 36 orr.

Asteunin senduoue. Udean txarra ementzan, nik beti kentzet, berue, berue. Arek buelta asko dauke ta, sosteni bai gerrixe bañe. Leno, zinturoik etzan izingo seuruo, beti olakukin.”
(Azkoitia).

■ “Zuozulakue!. Elurretan bajau, astukin, tratu bajatzeatiken prakakin de, multie!. Amen Amerketa zana baementzeon alkate!. Elurre ta neskan bat bajau da, aspaldi kalea, goizin, prakak jantzitze ta multi!. Oingo jazkerak ikusi balitzin!. Saso baten, ene!, Axkoitiko erretorik eta ola ikusi?, manga motzakin de elizea!. Zuk xifíxtxuizu, nik ezkondu arte soñeko manga motzik ez nula izen!. Esan dizupe len ameikano xar bat osaba gendula?, jolin!, bela!. Gonake oin baño luziok ibiliko giñuzen gañea?, gona motz oixe eta zea ta.

Iluntzien, ze, artin beintzer bi ordu argi, bi ordu iguel eongo zin argi te:

- Ori al den erromeire juteko sasoie? esate zuen. Ameiketako txinak erterzeñabe aixek gabeako!.

Eztakit ze izitezin txina oizek, ango pulanan batzuk izingozien o, itxuri daonez.

- Lengo neskak paisa, anka barreneañoko gonakin de, aixek aixek itunari neskak!.

Abarketa zuixek ibiltze zittuen ordun mutillek eta zeak eta, abarketa zuixek garbitzea jun urrungo eunin putzure ta, aren erritak!. Jesus!, sufriu eziō!, gizaixue, Ameiketan izindako mutil xar desesperau bat zan dà.”
(Azkoitia).

■ “Zuk pentsauzezu, nik ipiñi nun kritikie, prakak lelengo jantzi zituna ni izingo nitzen. Akordatze naiz, eta normala zan, gu basun da ta, otzakin de, ankak beltz beltz beltz inde eukitze giñuzen, beltz beltz beltz. Beltz ez, beztute ez ba, e?, moretura. Esanber ke tenia kangrena bezela gendukela.”
(Azpeitia).

■ “Eskolare, ordun guardasola, bueno!. Zakukiñ?, zaku buutik bea artu te. Baiñuzen zeare, aldeite ziyoen zea oyetakue, plastiku ta, alaku, bañe eztakipe.”
(Azpeitia).

ELIZARAKO JANTZIAK

■ “Leno abarkakin ibiltze giñen baño bai mendi bai kalea, kofio!, abarka garbitutakukin noski!. Da, jayetan mezeta ez. Jayetan mezeta jute giñen zapatakiñ, abarkakin bera jatsita. Kalin jazte giñuzen abarkak. Esan dizutan bezela ni xeí urtekian asite ba, lelengota botak bafio, geo asi nitzenin zortzi urtekian kalea, alberga atzin.

Abaliek an eukirzezun zaldije ta karrue, ta bat kalin ibiltzerezuna, ta besti an eukirzezuna, Ormatzeneko zementeyo azpiyen eukirzezun arek. Kanpotik, baño estalpien eukirzezun zea astue, ari lotu, erroberiei, ola móztu, karroaldea eman astue, karro gañea jijo, karrotik atea matrmita, geo laa karro gañien, jarxi bera, karrotiken geo bera artu marmite, bera jatxitakun, da geo ofietakuk aldatzea.

Noa ta alberge atzuko udeta. Eta Iateneko Luxia periodikue, aurreko periodikue o kendu ta:

- Bai!, akordako aiz oin ze itenenai bai, amendik eztakit zenbat urtea?. Esate ziñenan gure Luxia orrek eta. Bueno!, periodikukin sekau ankak, eta abarkak berriro. Abarkak jantzi, galtzeten txuriyekin eo giñuzenakin, eta arrastaka arrastaka, Xiriakoneko aldin aurrea plaza.”
(Azpeitia).

■ “Igandetan 6etan mezatara joaten ziren askotan bidean lasrazuziak piztuta. Lastaua hartu eta bi edo hiru lekutan lotzen zuten mantsoago erre zedin. Bakarrarekin iristen omen ziren Azpeitiko Albergaraino eta han oinetakoak aldatu eta sartzen ziren elizara. <<Gehienetan oso garaiz iristen ginen eta berriketan

egoten ginen kontu-kontari eliz atarian>>, gogoratzen du Joxek. Meza bukatzean, auzokoak elkarrekin itzuli ohi ziren etxera.¹⁷⁶

“Ta zapatake aldau eite giñuzen elizea jun ber bazane?. Etxetik abarketak jantzita abantau, te geo, eliz atxaixen bertan eo abarketak eantzi ta zapata dotoretxuouek jantzi. Ala, garbi te txukun elizea, ta erten-dakun, atzea berriz abarketak jantzi te etxea.”

(Azkoitia).

■ Martiten oñitura hau ere ba ote zen edo galdeztzean, honela erantzun digu berriemaile batek: “Guretan ez, ba, Elosun iñun ementzan ori, entzunda nao orire bañe, dotoretxuo zan aure. Ba, Martitten elizeare danak sallien, oin dala otamar bat urte danak, neska ta zea, abarkak, soka beltzak da galtzeta zuri zuriyek, gañea, zea abarkak preparatzte zituen, lustri ermandu,lustrie, betun!. Nola esatezue ori, bri-llu ata ta. Galtzeta zui zui zuiyek, garbiu, sokake garbiu, berri samarrak bertzeben izen, de olaxe.

Prakak berriz klase oixe*, maon ibiltze giñuzen de, panazko txaketie, ayek negun. Diruik etzan eta auke-raike ez oñ bezela. Lenengo beltza azaldu zan, ta geo azaldu zan marroe ori. Olaxe ibiltze zan jendie.” (Azkoitia).

■ “Gure arte zanak eta bai, baserritik Martittek elizeaño ankeutsik jute ementzin ta geo, eliz atayen, zimitiyue bada oñe, frontoe txiki bat dao, ba ortxe txapa bera sue ite ementzeben, egur pille bat birute.Ola, suekin sekau ta berotze ementzin ta abarkak jantzi ta elizea sartze ementzin.”

(Azkoitia).

■ Martiten, elizara sartu aurretik abarkak aldatzeko toki horren inguruko beste aldaera bat ere jaso dugu Elosu auzoan. Honela dio bertako berriemaile batek:

“Martitritako auzoak (Azkoitin) 40 bat baserri dittu ta eliza oso politta.

Estalpe bat zeuan; “mantilla etxia” esaten jakon ta an aldatzen giñuzen abarkak, zapatak, ta mantaliña jantzi, elizara joateko.

Neskak Ama Birjiñan kongregazionkuak giñen, ta mutillek San Luis.¹⁷⁷

Elosu (Azkoitia).

JANARIA ETA EDATEKOIA

JANARI KOZGARRI ETA EROGARRIAK¹⁷⁸

■ “Gorputza berotzeko janariak sopa berua, kafetesnia, babak, txokolatia, intxaurtak die. Lenau garixa ebaitzeko garaian jeiki ondoren, almortzau aurretik pattar gorrixoa eraten giñuan. Gorputza oztutzeko, tortilla otza da, ta urakin txarragua.”

Elosu (Bergara).

■ “Gorputza berotzeko piparra izango da ona.

Basora lanera juten giñanian, tortilla otza jatia txarra zala esate eben, ta gulk urdiaizpiko zati bat eo txokolatia eo intxaurrak eruaten giñuzen, ta erateko ur preskua; ardoik etzan aoten.”

Elosu (Bergara).

EGUNEROKO JANARIA

■ “Ta jatekore ze ba!, altzan jan da!. Goizin da gauin beti igual jate genun, baba gorriyek, esnie, batzu-izopie ta olaxe!. Ori bail!, domeketane leku askotan astin bezelaxe jate zan bañe gurin ez. Gurin dome-katan berdurie o beste zcoze apartekue izitegenun. Ta geo negun, sagar erriek jate giñuzen, sagarrak

¹⁷⁶ Agirre, Joxean eta Miren, Jesus, Joxe Agirre. *Marketaren Mielatuak (Bilbao eta Bermeoak)*. 34.orr.

¹⁷⁷ Goñi, Alfonso. *Elosu-Bergarako Etnografia*.

¹⁷⁸ Goñi, Alfonso. *Elosu-Bergarako Etnografia*.

lapiko baten ipiñi era becko suen jartze giñuzen, kakocik zintzilik.”

“Oliyue gutxi ematezan.Eta oliyue garai baten eontzan botellak jaboie bezelaxe jartze zala, jaboie bezelakotxie, eta su ondun ipini ta beru bezelaxe urtu o zeaitze zen.”

(Azkoitia).

■ “Orandan ez zen garai hartan jantokirik. Beheko suaren inguruan, sukaldean, biltzen zen familia. Amak labesua egiten zuen astean behin eta ogi handiekin batean opilak ere egiten omen zituen haurren pozgarri. Azukre piskaren bat izango zuten eta arrautza gorringoarekin kolorea ematen zien gainetik. Baino izan zituzten ogia ere urri ibilitako urteak.

<<Beheko baserriean, Landeta aldean eta, garia lehenago etortzen zen gurean baino eta gu sarritan anega bat edo bi eskatzeria joaten gintzaizkien eta gurean jotzen zenean itzultzen genitzkien. Negurako jeneralean garia gastatu egiten zen eta artoarekin bizi behar izaten genuen. Afaltzeko era gosaltzeko taloak erretzen ziren. Pentsa ezazue, mahaian dozena bat lagun eseritzten ginelarik, zenbat talo egin beharko zituen gure amak gure urdailek betetzeko>>, dio Joxek.

Astean behin arna azokara joan ohi zen, Azpeitira, astoa aurrean hartuta.<<Baratzako jeneroa eramango zuen, oilaskoren batzuk eta esnea. Eta ekarri, sardinzarren batzuk ekarriko zituen>> kontatzen du.¹⁷⁹

■ “Eguedixen nik peni oixe dauket, olakotxe berue ta aizu, udi ta zea ta, eguedixen babak beti.Aii!, erdixepaño gexo txerriteko ta urrungo egunin berrize babak Geo asizan gure ama zana kalea juten asizan eunero esnikin da zeakin da, aure bein kalea asi zanin pixket ola, ensaladie o ta pixket kanbixatzentz da, oin baño merkio zauten arraxe o zeoze ekartzen afaltzeako ta ola, pixket kanbixatzentz asi zan. Eta geo udan etxin zeuen geuzie, azie o bañie o berdurie o zeata, ori bai jate gendun bañie nei eguedikoa baba axek emateziben penie!. Jan eziñ, erdixek txerrijatea ta bestiek utrengoe guneen.

Geo ganbixatzentz asi zan pixket bizimodue, ta geo mutilleketa etorri zinen de, tomatie gordiñe jatezula gure anaxek aizu, gatzale batzuk botata ta guk parre itegiñon ari.Tomate gordiñiel-Oxe jatezebela ta zea ta. Geo danak ikixil. Leno jate genun letxugie gozaute binagrikin, binagrin gozau ta aure botata, gero entsaladie jaten da ikixi aixek etorri zin da, ni akordatzetza naiz.”

(Azkoitia).

■ “An ez pentsau ola! Leno erditik jan oi zan danak, ez ola, plater banatatiiken da, erdixen ipiñi zea ta andiken danak.Ta gurin bezela beste lekutane oixel. Auzolana zanine ala izitezan. Gure auzoko batek baldakizu zeirezun?.Beaure jatun ikeagarri xe zan ba ta, arrokoletxe ra azkenin postrin etortze zinin, zeoze, ollo ezurren bat o baldin bazeukan, ta!, botako zun platerea ta, bestik nazkaute ipiñi ta, geo dana'bea jan.”

(Azkoitia).

“EDATEKOA

✓RA: “Bai, zeoze akordarze naiz orire. Antxoia, goiko katretea jenealan ondo-ondun, potzu arta, an iturrixe zauen earra, ta area jute giñen. Ta geo, ure ekarri, de nik etxin alakoik eztet senriu, ure ekarritte.

Or Elormendiko batek esatezuen, Elormendiko andra batek, ure eaman, de etxea. Urrungo eunin jun ureta ta, pitterka ure, ta familixc aundixe ta, katillune ondarra musu garbitzeko, katillun bora ta.Umik ze ur ekarriko zun ba?da familixc aundixe ta, katillune ondarra musu garbitzeko, elizea juteko, astien. Pasa in ber nola ala!. Oixe ba ta, geo, geo dana etzeben artan kastauko, eaten eo, ostine, geoko gorde berko zan da.”

(Azkoitia).

SAGARDO ETA PATSARDOA: “Sagardo piska bat egiten zuten etxeak.Sagardoa edo patsardoa. <<Etxean ez genuen tolerarik eta Garatxabalera eramatzen genuen sagarra. Bostehun bat litroko kupela bat genuen eta gero komeriak izaten genituen kupela hori gurdia gainean jarri eta bidean gora ekartzen.Batzuetan

¹⁷⁹ Agirre, Juan de Alvaro, Jesus, Jose Agirre, Mozketauren Marisua (Bizitzaz eta Berriak), 33-34.eor.

bi behi pare behar izaten ziren tiraka. Etxean patsardoa egiten zen. Ni ezagutua nago txarraska ondo-ondo garbitu, mazoarekin han sagarra jo, patsa kuelara bota, ondoren urarekin kupela hori bete eta irakin pasada egiten zuenean handik edaten.Sagardo gustu piska bat izaten zuen, baina askorik ez.¹⁸⁰“

ESTRAPERLOA

■ “Kalea leno pao eurre saltze gendua. Eurre?, gurdi eurre ekarri ta artze zan irutamar laroei duro, gerra ondo artan. Ta ordureko irutamar laroei duro zien asko. Éta beti eurre ekarti eziñala. Ordun pauc sureako, iketzare gaestiye ta, eurre ibiltzezan. Nik ez nuen sall ayen amaieraik ezautu.Eurrekin beti diru asko artu izinda.

Ta geo, currekin eite genun estraperlure. Txarrixek eur artin sartu, etzeuenbe txarri gizena saltzeko ordenaiket, etzeben laatzten. Txarrixek gizendu ra, geo saltzeko, ta saltzeko or nonbaite ez da, urlaixe saltze zeben oin pasteleixe badao Presaldenin, antxe urdaixe saltze zeen. Ta ango zeakin de, tratu eindu gure gizonak, nola ekarri pentsau eziñ de, bueno!. Ill etxin da, zakun sartu txarrixek da, gurdi eurren erdixen ekariu bere ustetan exkutaute zea bañe, jakin batematzuk eta, jakintzebenin, aren ordezku mixekordire entreatzeko beste bat kastiutan. Eosi auzun da, an entreau gendun txarri gizena mixekordire. Pentsatzi baldin bazeren, lau bos mille pezta eozenei botatzeyioen multie. Txalakin urren-gun!. Nazionalixtak pentsatze bazeen multi botatzie, multi botatze zeen.”

“Eifi itegenun asko ta geo dana tapau. Bañe, ala ta guztize saltzeko gerau ittezan gurin, ta gose denporatuan kalin etzeuen ogik eta nere jaixotetxin erroti zeuen, eta ittenun eaman garixe ara, an txikiu errota eta geo osaba batetik kalin iriñe saltsezun eta ari ekartze nixon irifie. Nik, nik ze erropa ta ibillera eukiko ote nittun!.Ordureko anea berrixekin bosteun pezta ta xeireun pezta ateatzetan nitun. Baaldakizu erduko bosteun pezta ta xeireun pezta zertzin? .Fuf!. Zu kontu ateaiuzu. Or estaixo aldeko etxie, erriken dien lekuik ederrenetako bat ta etxike ederrak die. Garaje ta guzti bosteumille pezta etzitzekun kostua.”
(Azkoitia).

■ “Estraperlismo, jode!.Gose denboran da bai, bai!, neure, kontrabandun ez bañe!, ze esangoizut!.Gariye guk eukitze genun iguel, de arture bai, artu baserriyetan leku geyenetan eotezan, bañe beste tankea baten iguel iriñe iteik etzenduken, da orduen ba, juri ver izitezendu ba, eo gabien eo Aizpurutxo aldeare bai ta, beste baten Monteare bai, Monte baserriye, ta ordun nola kamiñoi etzeuen, oyeta etrez jutezan, guardaziilek etzin ba oyeta añ errez juten.Bafie kamifio ondun errortak bazeuden, Landakandan etroti zan, Aldatxaren erroti zan, gero Elosukuke bazin ane errortie, aure ya estraperlu asi ezkeo zeaintzan, Aizpurutxone bai ustet, erroti bazan. Oyeta jute balin baziñien kamiñiñun igual eotezin, ortxe ibiltze zin guardaziillak. Geo, ez motorrakin da kotxikin da, ofiez. Geo euki zeben bolara bat, bost eun igual eotezin erretira gabe, nunbatten, baserrin baten o estalpen baten lo eñ da, ordena aurexe eontzan urtetan gañea.Ordun ikuste baziñuzen, astu izitezan ordun trasportistie ta, nola esaten de, sesenta o sesentaizinko eo inguruko zaku bat astui gañin ipiñi ta.”

“Azukrin kontrabandua etzan Martitten asko ezautu, baserri bertako jeneruna geyenbat baserriyetan izitezan, kalin bai, kalin azukri ta oliyun kontabandu izitezan bai.”

(Azkoitia).

BESTELAKOAK

GABARDINA

■ “Oiruri bazan, otzak asi ta negun sartze giñen señale bezela eo, azarun bateako, santu guztiyen euneako, gabardina berriye erosi ber izitezan, da geo, pazko aundiyetan, beto, ortz o zea itemazune, gabardini bota ta jertsi jantzi ver izitegenun. Oitture ori bazan leno bai.”
(Azkoitia).

ERRENTAREN ORDAINKETA

■ “Kapoiek, erreenterue zanak nausixei emango zizkon. Gurin, erosi bañio leno, errentikin batea ollandak emate zitzekola nausixei. Ori, Uittitxon, besti ni juteako eositte zeuen.”
(Azkoitia).

LABORINA (TA RAZIONAMENDUA)

■ “Ayuntamentuk o pentsatzczuna erriko txulo batzuk aproberxatze zeben majo aure, bueno!. Gu beintzet oso kastigauk izin giñen e?, oso kastigauk e!. Gute jaixotexin gari asko izitezan bañio gero ezkondu nitzzen etxin gari geixo izitezan, eun anea ta izitezin. Ta oñ iteaba deklarazion delarenta diruena, ba ordun inber izitezan *Laborina*, garixena ta artuena, deklarazixue, zenbat izintzan eta guk itegenun deklarazixue bañie beti gutxixo, dudeik ezpa!. Eta ayuntamantun zeuen goiko etxien *morroe* eondako gizon bat zeuen, ean tarteku gañea zeoze, ayuntamentun, eta ikusi digu gure deklarazixue eta, ene!. Berroei aneo eztakit zertzin garixe zea deklarauteku ta, Maltzeta Etxetxun iziterzila larogei ta gutin eun anea ta geixo izitezila ta, bueno!. Gu kastiau giñuzen!. Guk otamar anea ta geixo ekartze giñuzen kalea, audek gari pillak!, kiloko pezetie paatzezien. Da artue ta babie ta clana ordunc?. Kastiauek izin giñen ziero e?, ziero kastianek!.”
(Azkoitia).

■ “Gose urteak izan ziren haien, baina batez ere urte bat izan omen zen txarra aparta. Hala dio Joxek. <<Urte hartan galburuak ere alerik gabe etorri ziren. Añua deitzen genion galburu klase horri eta hamabi anega bakarrik izan omen genituen. Gu, ordea, 14 anega eman behar razionamendukoei eta garia kanpoan erosten ibili omen ginen.” Ez daukatenei cre kendu egiten zietek hauek”, esan ohi zuen gure aitona zenak>>, gogoratzen du Joxek.^[81]”

OSTROTA JUN

■ “Gure aitona Txominek eindako pasadizotarik bat au izango zan, ainbeste izango zitun arek paseak, izene bearrok eraginda noski!. Aizpurutxoko kamian erdi erdian soka bat bota zabalian eta Zugaitzan abarrakin kargatu eta Elusura. Orri ostore jutea esaten zitzaison, au zan lizar arbolara edo aritz arbolara io eta bere abarrak moztu eta lurrera bota, eta gero danak toloztu edo txukun jarri eta sokan edo bestela astoan kargatu. Askotan bi astorekin joaten giñan kartolan jarrita, joan gustora egiten giñan gainean jarrita. Bueno, kontua zan abar oiek ganbaan edo atarian ustua eta gero gabian abar oiei ostoa kendu edo litxundu ganaduak jan zezaten. Orri litxundu deitzen genien eta bitartean denpora aurreratzeko erro-sarioa errezau, bestela aparte egin ezkero oso luze luze izaten zan.”
(Azkoitia).

Bibliografía

TESTUAK

- Agirre, Juan Joxe, *Azpeitiko Baserriak*, Azpeitiko udala, 1997ko uztaila.
- Agirre, Joxean, *Joxe Agirre. Mozketaren Maisua (bizitza eta bertsioak)*, Andoain, 1999.
- Aguirre, Antxon, *El rito funerario en Euskal-Herría*.
- Aguirre, Antxon, *Supersticiones populares vascas*.
- Amuriza, Xabier, *Herri eta Irri. 2. maila /Euskara bat*, Donostia, 1983.
- Aranzadi, Telesforo de, Barandiaran, José Miguel de, y Eguren, Enrique de, *EXPLORACION de diez y seis dolmenes de la sierra de Elosua-Plazentzia*, San Sebastian, 1922.
- Azkue, Resurrección María de, *Cuentos y Leyendas*.
- Barandiaran, José Miguel de y colaboradores, *El mundo en la mente popular vasca (creencias, leyendas y mitos) tomo IV*.
- Barandiaran, José Miguel de, *Tradiciones y Leyendas de Euskalerría*. Bilbao, 1973. *Obras Completas de J.M de Barandiaran (II)*.
- Barandiaran, José Miguel de, *Mitología vasca*.
- Barandiaran, José Miguel de, *Diccionario de Mitología Vasca*, Editorial Txertoa.
- Barandiaran, José Miguel era Sainz de Elvira, Inés, *Gipuzkoako Mito eta istorioak*, Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa, 1980.
- Barandiaran, José Miguel de, *Euskal-Herríko Mitoak*, San Sebastian, 1988.
- Caro Baroja, Julio, *Estudios vascos*, San Sebastian, 1973.
- Caro Baroja, Julio, *Brújula Vasea. Estudios vascos V*, San Sebastian, 1975.
- Elias, Imanol, *Amnka Zubia*, Eusko Jaurlaritza, 1988.
- Elias, Imanol, *Juan de Anchieta. Apuntes históricos*. Ediciones de la Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa, 1981.
- Elias, Imanol, *Azkoitia historian zehar*, Azkoitiako Udala, 1999ko abendua.
- Elexpuru, Juan Martín, *Fernando Plaentziarra*, Donostia, 1984.
- Etxeberri, P., *Esaera Zarrak*, Argia'ren Egutegia, 1933.
- Garmendia Larrañaga, Juan, *Jentilak, sorginak eta beste: Euskal Pentsamendu Magikoa (II)*, Donostia, 1994.
- Goñi, Mirantxu, *Elosu-Bergarako Etnografía*, 1983.
- Gorosabel, Pablo, *Noticia de los cosas memorables de Guipúzcoa*.
- Intxaurrandieta, Gabriel, *Errekarte, Loida ta Anai Garate (zenbait ezaugarri)*.
- Lasa, Fr. José Ignacio, *Urrestilla, Machinuenda, Beizama, Nuarbe y Aratz-Erreka*, Caja de ahorros de San Sebastian, 1975.
- Lazkano, Imanol, *Aho Bizarrrik gabe*.
- Mugarza, Juan, *Tradiciones, Mitos y Leyendas en el País Vasco, Tomo I*, Bilbao.
- Ormaizabal, J., *Pernando Amezketaarra*, Donostia, 1981.
- Peña Santiago, Luis Pedro, *Leyendas y Tradiciones populares del País Vasco*, Donostia, 1989.
- Peña Santiago, Luis Pedro, *Montañas del país vasco*
 - Tomo 1., *Al encuentro del pasado. Travesías-rutas y caminos*.
 - Tomo 2., *La campana de oro. Cumbres, travesías-rutas y caminos*.
- Peña Santiago, Luis Pedro, *La ruta de los brujos. Travesía insolita a través de Navarra, Guipúzcoa y Álava*.
- Peña Santiago, Luis Pedro, *Argazkiola Vasca: Creencias, ritos, leyendas y tradiciones populares relacionadas con las mismas*. Donostia, Auñamendi, 1964.
- Satrustegui, Jose Mari, *Mitos y Creencias*, San Sebastian, 1983.
- Zavala, Antonio, *Esaera Zilarren Bilduma Berria (I)*, Auspoa liburutegia, 1985.
- Zavala, Antonio, *Esaera Zilarren Bilduma Berria (II)*, Auspoa liburutegia, 1985.

* * * * *

Eskerrak

Eskerrak bihotz-hibotzez proiektu honetan parte hartu duten hauei:

- Aloña Olaizola
- Antonio Agirre
- Blas Aramendi
- Boni Alegria
- Gregorio Bideaurre
- Imanol Lazkano
- Inazio Amilibia
- Jexixa Aldalur
- Josefa Uria
- Jose Antonio Oruesagasti
- Joxe Agirre
- Joxe Oruesagasti
- Joxe M^a Agote
- Julian Aranburu
- Justo Aizpitarte
- Maria Jesus Oruesagasti
- Maria Luisa Alberdi
- Mireia Otaegi

eta gainerako guztiei; beraien laguntzarik gabe ezinezkoa izango litzatekclako bilketa hau egitea.



**GOIZARGI
ORUESAGASTI**
(Azpeitia, 1978)

Euskal Filologia ikasi zuen Gasteizen. Ondoren, Euskal Ikasketen graduondokoa egitean, esku artean duzuen bilketa hau aurkeztu zuen amaierako lan gisa.

Orain, herriarena den lan hau herriari eskaini nahi dio.



Azpeitiko Udala



EUSKAL
ANTZERKI
TOPAKETAK
AZPEITIA